

ABADIÑO LAGUNKOIA

Lagunkoitasunari buruzko
diagnostiko parte-hartzailearen emaitzak

2017ko Iraila - 2018ko Iraila





Arantza Abaunza
Juan José Abaunza
Edurne Agirre
Guadalupe Agirrebeitia
Loli Agirrebeitia
Arantza Altube
Jose Antonio Altuna
Pilar Ania
Carmen Arbelaiz
Maria Estefania Arriola
Regina Arriola
Yolanda Arrizabalaga
Miguel Ángel
Arietaarruabarrena
José Antonio
Arietaarruabarrena
Maria Antonia Arzubia
Jose Mari Ascacibar
Begoña Atxaorbea
Angel Azkurbebeitia
Jesús Baranda
Amparo Barcala
Juan Benito
M^a Carmen Bergaretxe
Isabel Bizkarra
Loli Bizkarra
Sabino Cearsolo
Vitoriana Dávila
Alberto Delgado
Pedro Derteano
M^a Tere Eguren
Juan Luis Elorza

Alejandra Escaño
Seberiana Etxebarria
Eduardo Gabiria
Ricardo Gallastegi
Jesús M^a Garai
Mikel Garaizabal
Jose Andrés Garatu
Maite García
Primi García
Fernando Gastelu-Iturri
Isabel Gastelu-Iturri
Luisi Gómez
Gaizka Gómez
M^a Luz Gonzalo
Pilar Herreras
Eloy Isasi
Alberto Iturriaga
M^a Jesús Izpurua
Jose Ramón Larrauri
Jose Antonio Larrinaga
Maria Luisa Larringan
Josefina Loizate
Carmelo Lope
Jose Mari Macías
Bego Madrazo
Martín Maiztegi
Julia Martin
Alberto Mendiolagarai
Lourdes Mendizabal
Miren Mendizabal
Marga Meñika
Félix Moreno

Mari Murgoitio
Juan Jose Murua
Ana Nieves
Amaia Olabarriaga
Pili Olabegoia
José Antonio Odriozola
Inés Otxoantesana
Iñaki Pagonabarraga
Roberto Pérez
Juana Ruiz
Bego Salterain
Jose Antonio Salterain
Joxan Salterain
Julián Salterain
Imanol Santacruz
Asun Santos
Mariaje Sarraoa
Ana Mari Sarrionaindia
Loli Sebastián
Elvira Sevilla
Rosa Siota
Begoña Totorikaguena
Valvanera Turza
Roberto Unzueta
Marxel Uria
Iñaki Uriarte
José Ramón Uribelarrea
Julián Zabala
Sebastián Zalbidegoitia
Julián Zelaieta
M^aPilar Zurinaga

* Eta proiektu hau gauzatzen lagundu duten pertsona guztiak

AURKIBIDEA

1

SARRERA

07-09

2

**ADINEKO
PERTSONEKIN
LAGUNKOIAK
DIREN HIRIAK**

11-15

3

METODOLOGIA

17-23

4

**ABIAPUNTUA:
ABADIÑO**

25-31

5

**PROZESUA ETA
PARTAIDETZA**

33-43

6

EMAITZAK

45-83

7

**BALORAZIOA
ETA HURRENGO
URRATSAK**

83-87

1

SARRERA



Mundua oso azkar zahartzen ari da: 2050. urterako bikoiztu egingo dira 60 urte baino gehiago dituzten pertsonak, eta 2006an %11 izatetik 2050ean %22 izatera igaroko dira. Europaren kasuan, pertsonen %30 65 urte baino zaharragoa izango da (Osasunaren Mundu Erakundea, 2005). Abadiñoako udalerrriak ere joera berbera jarraituko du. Errealitate honen aurrean, berebiziko garrantzia du etorkizunera begiratu eta gizartea, zein dauzkagun zerbitzu eta baliabideak aztertzeak, egoera berriei erantzungo dieten proposamenak garatzeko.

Testuinguru horretan sortu da Abadiño Lagunkoia proiektua. OMEk 2005ean abiarazi zuen “Adinekoekin Lagunkoia diren Hiriak” programa oinarritzat hartuz, dokumentu hau Abadiñoako adineko pertsonen, Marakako teknikari-taldearen laguntzaz, gauzatu duten diagnostiko parte-hartzailearen lehenengo fasearen emaitza da.

Dokumentuak zazpi kapitulu ditu:

1. Sarrera
2. Adineko pertsonekin Lagunkoia diren Hiriak
3. Metodologia
4. Abiapuntua: Abadiño
5. Prozesua eta partaidetza
6. Emaitzak
7. Balorazioa eta hurrengo urratsak

Sarreran, testuingurua eta proiektuaren helburuak aurkezten dira. Bigarren kapitulan, OMEren Hiri Lagunkoia programa deskribatzen da. Hirugarren kapitulan, prozesuan erabili den metodologia eta honen ezaugarriak zehazten dira. Laugarren kapitula Abadiñoako egungo egoerari buruzkoa da, eta datu soziodemografikoak adierazten dira. Bosgarren kapitulan, Abadiño Lagunkoia proiektuan landu den prozesu zehatza eta proiektuan pertsonen izan duten partaidetza azaltzen da. Seigarren kapitulan, prozesuan lortu diren emaitzak zehazten dira. Azkenik, zazpigarren kapitulan, parte-hartzaileen balorazioak eta proiektuko hurrengo urratsak jasotzen dira.

“Europako biztanleriaren %30k 65 urtetik gora izango du 2050ean”.

Osasunaren Mundu Erakundea (OME), 2005

HELBURUAK

Abadiño Lagunkoia proiektuaren helburu nagusia beharrezko ezaugarri eta gakoak identifikatzea da Abadiño adineko pertsonentzako udalerrri lagunkoia izan dadin, eta ondorioz, baita beste pertsona guztientzako ere, proposamen berritzaile eta inklusiboak sortu ahal izateko.

Proiektuaren asmoa ez da bakarrik udalerrria fisikoki aldatzea. Helburu hauek ere lortu nahi ditu:

- Adineko pertsonen ahalduntzea bultzatzea, gizartean eta erabakitze-eremuetan partaidetza aktiboa izan dezaten.
- Adineko pertsonen eta beren inguruko eragileen (zaintzaileak) beharrak, nahiak eta ikuspuntuak ezagutu eta kontuan hartzea, eta politika, zerbitzu eta egitura publikoetan txertatzea.

2

**ADINEKO
PERTSONEKIN
LAGUNKOIAK DIREN
HIRIAK**

“Inguru lagunkoiek adineko pertsonen bizi-kalitatea hobetzen dute, bizitza independentea eta zahartze aktiboa sustatuz”.

OME, 2007

Proiektua Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) bultzatutako “Adineko pertsonen Lagunkoia diren Hiriak” programaren barruan dago.

Programa horren xedea hiriei adineko pertsonen ikuspegitik begiratuak izateko laguntza ematea da, identifikatzeko zein alderditan eta nola izan daitezkeen “lagunkoiagoak” adineko pertsonekin, zahartze aktiboaren paradigmen barruan.

“Adineko pertsonen lagunkoia den hiriaren” ideia OMEren zahartze aktiboari buruzko planteamenduetan oinarritzen da: adineko pertsonen lagunkoia den hiriak zahartze aktiboa bultzatzen du, osasun-aukeraren, partaidetzaren eta segurtasun-optimizazioaren bidez, zahartu ahala pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko.

Testuinguru honetan garatzen da Vancouverreko Protokoloa. Protokolo horren lehenengo fase pilotua mundu osoko 33 hiri erabili zuten programa egokitzeko. Egun, mundu osoan garatzen ari diren Hiri Lagunkoia programen oinarria da.

Vancouverreko Protokoloaren arabera, adinekoekin lagunkoia den hiriak honako baldintza hauek bete behar ditu:

- Adineko pertsonen artean dagoen aniztasun handia aintzat hartzea.
- Adineko pertsonen inklusioa eta ekarpena sustatzea bizitza komunitarioaren eremu guztietan.
- Bizimoduari buruzko erabaki eta aukera guztiak errespetatzea.
- Zahartzearekin lotutako behar eta lehentasunak aurreikusi eta malgutasunez erantzutea.

Behetik gorako ikuspegia



01. irudia: behetik gorako ("Bottom-up") ikuspegia

Lau faseko metodologia



02. irudia WHO Age-Friendly Network-etik egokitua (OME)

Adineko pertsonekin lagunkoia den komunitate batean, inklusio-kultura dago, adin eta gaitasun guztietako pertsonek partekatzen dutena. Inguru fisiko eta sozialari buruzko politikak, zerbitzuak eta egiturak diseinatzen dira, adineko pertsonek “zahartze aktiboa” izateko aukera eduki dezaten, hau da, lehen esan bezala, segurtasunez bizi daitezen, osasun ona izan dezaten eta gizartean parte hartzen jarrai dezaten.

Atal honetan, garrantzitsua da azpimarratzea behetik gorako partaidetza-ikuspegia (01. irudia), eta horri prozesu osoan zehar eutsi behar zaio. Vancouverreko Protokoloan deskribatzen den bezala, Adineko Pertsonekin Lagunkoia diren Hiriak proiektuak tokian kontrolatutako behetik gorako ikuspegia hartzen du modu esplizituan. Adineko biztanleriarekin lagunkoia denari eta ez denari buruz adineko pertsonek bizitako bizipenekin hasten da, eta ondoren, udalerrira adineko pertsonek beharretara egokitzeke egin ahalko litzatekeenari buruz hausnartzen da. Hiri lagunkoia lortzeko programak lau fasetan banatutako prozesua proposatzen du (02. irudia):

- 1. Diagnostikoa eta ekintza-plana** (iraupena: 1-2 urte)
- 2. Ekintzen inplementazioa** (iraupena: 3 urte)
- 3. Ebaluazioa** (iraupena: urtebete)
- 4. Etengabeko hobekuntza** (prozesua berriro hastea)

Hiri Lagunkoen programak honako zortzi gai hauei buruzko diagnostikoa egitea proposatzen du proiektua garatzeko:

- Aire zabaleko espazioak eta eraikinak
- Garraioa

- Etxebizitza
- Errespetua eta inklusioa
- Partaidetza eta gizarte sarea
- Herritarren partaidetza eta lana
- Komunikazioa eta informazioa
- Gizarte eta osasun zerbitzuak

Lehenengo hiru gaiak «Aire zabaleko espazioak eta eraikinak», «Garraioa» eta «Etxebizitza», hirien inguru fisikoaren ezaugarri nagusiak dira, eta lotura zuzena dute pertsonek mugikortasunarekin, segurtasunarekin, osasunarekin eta partaidetza sozialarekin.

Hurrengo hiru gaiak «Errespetua eta inklusioa», «Partaidetza eta gizarte sarea» eta «Herritarren partaidetza eta lana», zuzenean lotuta daude inguru sozialarekin eta kulturarekin eta eragin zuzena dute pertsonek partaidetzan eta ongizatean. «Errespetua eta inklusioa» gaian, gizarteak eta banakako pertsonek adineko pertsonekiko duten jarrera jorratzen da. «Partaidetza eta gizarte sarea» atalean, adineko pertsonek hainbat jardueretan (aisialdia, sozializazioa, kultura, hezkuntza, erlijioa, etab.) izan dezaketen partaidetza aztertzen da. «Herritarren partaidetza eta lana» atala adineko pertsonek boluntarioak izateko eta erabakitze-guneetan modu aktiboan parte hartzeko dituzten aukerei buruzkoa da.

Azken bi gaiek «Komunikazioa eta informazioa» eta «Gizarte eta osasun zerbitzuak» gizarte-zerbitzuetako alderdiak hartzen dituzte kontuan.

Esparru horretan txertatzen da Abadiñon gauzatuko den Adineko Pertsonekin Lagunkoia diren Hiriak proiektua.



Aire zabaleko espazioak
eta eraikinak



Garraioa




Etxebizitza



Errespetua eta inklusioa



Partaidetza eta gizarte sarea



Herritarren partaidetza
eta lana



Komunikazioa eta
informazioa



Gizarte eta osasun
zerbitzuak

03. irudia: OMEk Hiri Lagunkoiak programak garatzeko proposatutako 8 gaiak

3 METODOLOGIA

Pertsonak erdigunean jartzea, euren beharrak identifikatzea eta proposamen berriak sortzea.

Abadiño Lagunkoia diagnostikoan erabili den metodologia Vancouverreko Protokoloan oinarritzen da, hots, Ekintza-Ikerketa (EI) delakoan.

Diagnostiko parte-hartzailea egiteko, EI metodologia bateratu egin da diseinupentsamenduarekin eta zerbitzuen diseinuarekin.

Hurrengo ataletan bi metodologiak eta prozesuaren ezaugarriak deskribatzen dira.



04. irudia: Abadiño Lagunkoia diagnostikoaren saioa



05. irudia: Abadiño Lagunkoia diagnostikoaren saioa

EKINTZA- IKERKETA

Ekintza-Ikerketa metodologia analisi kuantitatiboarekin eta kualitatiboarekin bateratzen da. Datu kuantitatiboak biltzeaz gain, helburutzat du pertsonen pertzepzio, sententzioak eta beharrak modu kualitatiboan biltzea, egungo egoerari buruzko argazki ahalik eta konplexuena sortuz.

Aurrez deskribatu ditugun zortzi gaiak aztertzeke, hainbat teknika eta tresna erabili dira, eta baita bigarren mailako iturrien azterketa eta prozesu parte-hartzailea ere, foku-taldean eta elkarriketen bidez.

BIGARREN MAILAKO ITURRIEN AZTERKETA

Udalerrian dagoen informazioa bildu eta aztertzean datza, bai datu soziodemografikoak, bai parte hartuko duten eragileei, eta lehenago egin diren planei, programei edo diagnostikoei buruzko informazioa.

Hori da datu kuantitatiboak biltzeko modua. Beste batzuek egindako dokumentazioa, erreferentziazko datuak eta datu estatistikoak aztertzea da helburua.

Teknika honi esker, lan egingo den inguruaren ikuspegi orokor bat lortzen da.

PROZESU PARTE-HARTZAILEA

Ikerketaren zati kualitatiboa da, foku-taldean bidez egindako prozesua (ezaugarri berdinen bat duten pertsonen taldeak: adina, bizitokia, generoa, etab.). Udalerriaren lagunkoitasunari buruz eztabaidatzea, ideiak biltzea eta adineko pertsonen ahalduentzea sustatzea dira prozesuaren helburu nagusiak.

Prozesua iraupen jakin bat duten saio parte-hartzaileen bidez garatzen da. Saio hauetan, hainbat dinamikaren bidez, parte-hartzaileak motibatzen dira, bere iritzia eman eta proposamen lagunkoi berriak pentsa ditzaten.



06. irudia: Abadiño Lagunkoia proiektuaren lehenengo saioa Errota Kultur Etxean.



07. irudia: prozesuaren saio parte-hartzailea

ELKARRIZKETAK

Egoera jakin bat bizi duten edo bizi izan duten pertsonen errealitatea eta bizipena entzun eta ulertzea da elkarrizketen helburua. Pertsonen emozioak eta motibazioak ezagutzea da kontua, nola bizi diren eta nola jarduten duten ulertzeko.


Prozesuan elkarrizketatutako pertsonak adineko pertsonen inguruarekin harremanen bat duten pertsonak edo eragileak izan dira.

DISEINU PENTSAMENDUA ETA ZERBITZU DISEINUA

Kapituluaren hasieran azaldu den bezala, prozesua garatzeko Ekintza-lkerketa eta Diseinu-pentsamendua eta Zerbitzu Diseinua metodologiak erabili dira.

Diseinu-pentsamendua (Design Thinking) pertsonak erdigunean jartzen dituen metodologia da, diseinuan erabiltzen diren tresnez baliatzen dena. Pertsonen beharrei erantzuten saiatzen da, ikuspuntu teknologikotik egingarria bihurtzen duten ezaugarriak eta ikuspuntu ekonomikotik bideragarria bihurtzen duten ezaugarriak kontuan hartuz.

Metodologia hau 70eko hamarkadan hasi zen garatzen Stanfordeko Unibertsitatean (AEB). Egun, hezkuntzaren, gizarte-berrikuntzaren negozio-sorkuntzaren eta marketinaren eremuan erabiltzen da. Honako hauek dira bere ezaugarri nagusiak: sormena, enpatia, pertsonak erdigunean jartzea eta prototipatzea.



08. irudia: Diseinu-pentsamenduaren eskema
(Tim Brown, 2009)

Zerbitzu diseinua pertsonak, azpiegiturak, komunikazioa, produktuak eta materialak eta bizipenak barne hartzen dituzten zerbitzuak eta sistemak aztertu, planifikatu eta diseinatzeko dituen diziplina da, zerbitzuen eta sistemen kalitatea eta erabiltzaileekiko elkarreragina eta euren bizipena hobetzeko helburuarekin. Zerbitzu diseinuak aukera ematen du pertsonen nahi eta beharretan oinarritutako proposamenak gauzatzeko, beren bizipena hobetuz.

PROZESUAREN EZAUGARRIAK

Aurrez deskribatutako guztia kontuan hartuz, Abadiño Lagunkoia prozesuaren diagnostiko-prozesua eratu da, honako ezaugarri hauekin:

PERTSONAK ERDIGUNEAN JARTZEN DITUENA ETA PARTE-HARTZAILEA

Diagnostikoa egiterakoan, edo zerbitzua edo sistema diseinatzerakoan ezinbestekoa da erabiltzaileen beharrak eta premisak identifikatzea, gauzatuko dena ulergarria, funtzionala, erakargarria eta atsegina izan dadin beraientzako.

Pertsonen ikuspegitik lan egiteak hizkuntza inklusiboa oinarritzat hartuta lan egiteko aukera ematen du. Hori posible izan dadin, pertsonak prozesuaren erdigunean jarri behar dira.

Gainera, prozesu parte-hartzaileak funtsezkoak dira adineko pertsonen ahalduntzea sustatzeko.

SORTZAILEA

Arazo edo erronka baten aurrean konponbidea bilatzeko dugun gaitasuna da guretzako sormena. Tresna eta teknika desberdinak erabiltzeak ezohiko arazoak identifikatzeko eta ideia berritzaileak sortzeko aukera ematen du.

Sormena prozesu osoan txertatzen da, proiektuaren fase bakoitzean hainbat teknika eta tresna erabiliz.

IKUSPEGI SISTEMIKOA

Udalerriaren lagunkoitasunari buruz hitz egiten denean, ikuspegi sistemikoa txertatu behar da prozesuan. Hainbat gai aztertu arren, garrantzitsua da zeharkakotasunari eustea eta gaien arteko lotura kontuan hartzea.

Arreta daukagun erronka edo arazoa baino harago jartzen bada, proiektuak ikuspegi zabalagoa izango du eta sortutako ideiek ere modu osoagoan erantzungo diete erronkei.

ITERATIBOA


Esperimentazioan eta ekintzan oinarritzen den metodologia da. Prozesuaren hasieratik mahaigaineratutako arazoentzako proposamenak sortzen hasten dira. Ideien egiaztapena edo bazterketa errazten du, prozesuan parte hartzen duten pertsonak erdigunean jartzen dituzten konponbideak bilatzeko.

GENERO IKUSPEGIA

Genero-ikuspegiaz hitz egiten denean, ikuspuntu bi nabarmentzen dira: batetik, emakumeak eta gizonak modu berean zahartzen direla dioena, eta bestetik, emakumeak eta gizonak zahartzaroa modu desberdinean ulertzen dutela dioena (Yuni eta Urbano, 2008).

Bigarren ikuspegiarekin jarraituz, emakumeak eta gizonak modu desberdinean zahartzen dira (Hernández, 2000). Gizonen bizitzako bizipenak lotura gehiago dute adin kronologikoarekin, emakumeengan, berriz eremu gehiago batzen dira, lana, familiarteko harremanak, etxeko lana, zaintza, etab.

Ikuspegi hau kontuan hartuta, garrantzitsua da prozesuan ager daitezkeen genero-desberdintasunez konturatzeari.




Pertsonak erdigunean jartzen dituen eta parte-hartzailea




Sortzailea



Ikuspegi sistemikoa



Iteratiboa



Genero ikuspegia

09. irudia: prozesuaren ezaugarriei buruzko eskema

4

ABIAPUNTUA: ABADIÑO

DESKRIBAPEN OROKORRA

Abadiño Durangaldeko eskualdean kokatuta dago, eta bertako udalerrri garrantzitsuenetakoa bat da, bai biztanleriari dagokionez (7.620 biztanle, horietatik 3.783 gizonak eta 3.837 emakumeak), bai hedapenari dagokionez (36,26 km²) Udalerrriaren ezaugarrietako bat hiru biztanleria-gune desberdin dituela da, Zelaieta auzoa, Traña-Matiena eta Muntsaratz. Zelaieta auzoan daude eraikin zaharrenak eta hiri-garapen berrienak eta bertan daude udal-instalazioak ere, udaletxea, adibidez. Gune honek biztanleria-kopuru txikiagoa du Traña-Matienak baino. Traña-Matiena Abadiñoko bilakaera industrialaren eraginez sortu zen batez ere. Hiriko ezaugarri gehiago ditu, biztanleria-kontzentrazio handiagoa, eta ondorioz aire zabaleko gune gutxiago. Bestalde, Muntsaratz, biztanleriaren kokagune berriena da, egoitza-auzoaren ezaugarriak ditu eta zerbitzu batzuek hornituta dago. Abadiño beste landa-auzo batzuek ere osatzen dute: Amaitermin, Astola, Gaztelua, Gerediaga, Irazola, Lebario, Mendiola, Murueta, Sagasta eta Urkiola.

60 eta 70eko hamarkadetan, udalerriko biztanleria asko hazi zen. Horren zergatia Estatutik eta Durangaldetik eta gertuko udalerrietatik etorritako immigrazioa izan zen, Debabarreneko enpresak Abadiñora eraman baitzituzten.

Bilakaera demografikoari dagokionez, 90eko hamarkadan biztanleriak behera egin bazuen ere, biztanle-kopuruak gora egin du pixkanaka azken hoge urteotan zehar (ikusi 01. grafikoa).


Biztanleriaren dentsitateari dagokionez, udalerrriak duen hedadura handia dela-eta, Abadiñok 211,55 biztanle ditu Km²-ko, baina dentsitate horrek nabarmen egiten du gora hirigunean. Eskualdean hedadura gehien duen udalerrria da, Elorrioren atzetik.

Abadiñon, biztanleriaren %18k 65 urte baino gehiago ditu eta %25ek 60 baino gehiago.


Biztanleriaren dentsitatea (biztanle/km ²) ²	
Abadiño	211,55
Durangaldea	312,04
Bizkaia	514,41
EAE	300,74

² EUSTATEko datuetan oinarrituta, 2017 Biztanleen Udal Estatistika (BUE) erreferentzia-urteko urtarilaren 1ean.

01. grafikoa: Abadiñoako bilakaera demografikoa (1996-2017)⁴




02. grafikoa: Abadiñoako biztanleriaren bilakaera jatorriaren arabera (2001-2017)⁵




⁴ Iturria: EUSTATEko datuetan oinarrituta, 2017 Biztanleen Udal Estatistika (BUE) erreferentzia-urteko urtarilaren 1ean.

⁵ Iturria: EUSTATEko datuetan oinarrituta, 2017 Biztanleen Udal Estatistika (BUE) erreferentzia-urteko urtarilaren 1ean.

03. grafikoa: 65 urte baino gehiagoko biztanleriaren bilakaera (2001-2017)⁶



04. grafikoa: 65 urte baino gehiagoko gizon eta emakumeen bilakaera (2001-2017)⁷



⁶Iturria: EUSTATEko datuetan oinarrituta, 2017 Biztanleen Udal Estatistika (BUE) erreferentzia-urteko urtarilaren 1ean.

⁷Iturria: EUSTATEko datuetan oinarrituta, 2017 Biztanleen Udal Estatistika (BUE) erreferentzia-urteko urtarilaren 1ean.

35 urtetik gorako pertsonen kopuruan goranzko joera antzematen da, biztanleriaren zahartzearen inguruan dagoen joera orokorrarekin bat etorriz. Eustat-en arabera, 2017. urtean 1.391 ziren 65 urtetik gorako pertsonak, hau da, biztanleria osoaren %18. Gainera, 04. grafikoan ikus daitekeenez, emakumeen kopurua handiagoa da. Kolektibo horretako pertsonen %54 emakumeak dira, eta datu horiek EAEko datuen (%58) eta Bizkaiko datuen (%58) antzekoak dira.

Egun, Estatuko beste autonomia-erkidego batzuetatik datozen pertsonak Abadiñoko biztanleriaren %19 dira eta atzerritarrak %6.

Industriaren sektorea da Abadiñoko ekonomia-jardueraren sektore nagusia, batez ere metalaren eta automobilgintzaren sektorea. Zerbitzuen sektorea lanpostu gehien sortzen dituen bigarren sektorea da, eta baita tokiko ekonomiari aberastasun gehien ekartzen dion bigarrena ere.⁸

UDAL BALIABIDEAK

GIZARTE BALIABIDE ETA PRESTAZIOAK

Gizarte-zerbitzuen funtzioa arrisku edo mendekotasun, desgaitasun, bazterketa eta/edo babesik gabeko egoeran aurki daiteken pertsona oro artatzea, biztanleria guztiaren gizarte-integrazioa eta autonomia sustatzea eta, beste sistema eta arlo batzuekin koordinazio eta kooperazioan (enplegua, etxebizitza, osasuna, hezkuntza, justizia...), inklusioa eta gizarte-ongizatea sustatzea da. Abadiñoko Udalak gizarte-zerbitzuak Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoaren bitartez eskaintzen ditu, kide den aldetik honen finantzazioarekin laguntzen baitu.

Udalerri mailan, Abadiñoko Udaleko Gizarte Ongizateko alorretik, Udaleko Elikagaien Bankua kudeatzen da, gizarte erakundeei dirulaguntzak ematen zaizkie eta udalerriaren erantzukizuna diren bazterketa eta mendekotasun egoeretara bideratutako prestazio ekonomikoak ere tramitatzen dira.

Baliabide horiek beste udalerri batzuetan kokatzen badira ere, Abadiñoko herritarrek Durangoko eguneko zentroa erabil dezakete, honetarako bi txandatan antolatzen den garraio zerbitzua eskaintzen delarik (9:00etan eta 18:00etan). Honetaz gain, libre dauden plazen arabera, eskualdean dauden hiru egoitza (Durango, Elorrio eta Otxandio) publikoetako batean plaza bat eskuratu ahal izango dute, baita pribatuak diren beste egoitza batzuetan ere.

Hurrengo taulan zerbitzu edo baliabide batzuen erabilera datu batzuk jasotzen dira⁹:

	Perts. Kop.	E	G
Mendekotasun graduren bat duten pertsonak	296	-	-
Telelaguntza	101	-	-
Etxez-etxeko laguntza	20	-	-
Nagusilagun	15	11	4
Zaindu	49	38	11

⁸ Abadiñoko Elizateko Udala

⁹ Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoa

Adineko pertsonentzako zerbitzua:

Adineko pertsonentzako zerbitzuaren barruan hainbat programa eta jarduera daude.

Lehenengo, Mankomunitateko erretiratuen 12 elkarteri laguntza-zerbitzua eskaintzen die. Diru-laguntzak eskatzeko izapideak egiten eta elkarteak antolatzen laguntzen die, elkarteak indartu eta dinamizatzeko laguntza etab. Horixe da zerbitzuaren jarduerarik garrantzitsuenak.

Horretaz gain, bestelako jarduera ireki batzuk ere antolatzen dituzte: prestakuntza-tailerrak eta lanerako prestakuntza edo jarduera fisikoak eta kirol-arlokoak. Jarduera horietara edozein adineko pertsona joan daiteke.

Azkenik, bi programa desberdin eskaintzen dituzte adineko pertsonentzako, euren egoera eta adina kontuan hartuta.

Batetik, Durangaldeko Esperientzia Institutua (DEI) delakoa. Topagune horretan, 55 urte baino gehiagoko pertsonak prestakuntza jaso eta bizipenak trukatu ditzakete, gizartearen partaidetza aktiboa izatea helburu duenak.

Bestetik, Nagusilagun programa, 80 urtetik gorako pertsonentzako. Parte-hartzaileek ariketa fisikoa eta kognitiboa egiten dute ordu eta erdian zehar, astean bi aldiz. Nagusilagun talde bat dago Matienan, astearte eta ostegunetan biltzen dena 16:00etan Errota Kultur Etxean.

Zaindu Programa:

Programaren helburua da laguntza eta orientabidea eskaintzea mendekotasuna duten pertsonen familia zaintzaileei. Prestakuntza-ekintzak, laguntza-tailerrak antolatzen ditu eta laguntza, arreta eta orientabidea eskaintzeko zerbitzua du.



10. irudia: Abadiño, Traña plaza, Matiena



11. irudia: Abadiño, Traña plaza, Matiena

ELKARTEGINTZA

Abadiñon adineko pertsonen bi elkarte daude, bat Matienan eta bestea Zelaietan. Egun, Matienako San Prudentzio erretiratuen elkartean 560 kide dira, eta horietatik 326 emakumeak dira eta 234 gizonak. Zelaietako San Trokaz erretiratuen elkartean 231 kide dira, eta horietatik 142 emakumeak dira eta 89 gizonak. Hala, Abadiñoko 65 urtetik gorako pertsonetatik %57 elkarteetako kide dira eta kide horietatik %59 emakumeak dira.

OSASUN ZERBITZUAK

Osasun zerbitzuei dagokienez, udalerriko beste hainbeste alderdi bezala, bikoiztuta daude: hiru farmazia daude, Matienan, Muruetan eta Zelaietan; osasun-zentro bat Matienan eta kontsultategi bat Zelaietan.

Egun, Zelaietako kontsultategian familiako medikuntzako kontsulta, pediatriako kontsulta eta erizaintzako kontsulta daude. Matienako osasun-zentroan, berriz, zerbitzu horiez gain, emagin-zerbitzua, ginekologia-zerbitzua, odontologia-zerbitzua eta familia-plangintza zerbitzua ere eskaintzen dira.


Larrialdietarako eta asistentzia espezializaturako, Durangoko osasun-zentrora joan behar da, eta bertan artatzen dira larrialdiak 17:00etatik 8:00etara eta 24 orduetan asteburuetan eta jaiegunetan. Azkenik, Durangon artatu ezin diren larrialdi eta asistentzia espezializatueterako, Abadiñon bizi diren pertsonak Galdakao - Usansoloko ospitalera joan behar dira.

5

PROZESUA ETA PARTAIDETZA

PROZESUAREN AZALPEN ESKEMA ETA ARGAZKIAK

FOTOS Y ESQUEMA EXPLICATIVO DEL PROCESO



TALDE ERAGILEAREKIN ALDIZKAKO BILERAK REUNIONES PERIÓDICAS CON EL EQUIPO MOTOR (8)



12. irudia: Abadiño Lagunkoia prozesuko eskema

🕒 Denbora Tiempo

👤 Pertsona kopurua Número de personas

🟢 Ospatutako saioa Sesión celebrada

🟡 Ospatzeko saioa Sesión por celebrar


1. FASEA | EKINTZA-IKERKETA

1. FASE | INVESTIGACIÓN-ACCIÓN



1. FASEA | IKERKETA OSAGARRIA

1. FASE | INVESTIGACIÓN COMPLEMENTARIA



- Zaindu programan parte hartzen duten familiakoak diren zaintzaileak. Familiares cuidadores/as participantes en el programa Zaindu



PROZESUA

Aurreko orrialdeetako eskemetan erakusten den bezala, Abadiño Lagunkoia proiektuaren diagnostiko-fasea 2017ko iraila eta 2018ko ekaina bitartean garatu da.

Ekintza-lkerketa metodologian oinarrituta, eta Diseinu-pentsamenduarekin eta Zerbitzuen diseinuarekin bateratuta, prozesuaren garapenean honako ekintza hauek burutu dira:

- Bilerak talde eragilearekin
- Bigarren mailako iturrien azterketa
- Partaidetza saioak
- Elkarriketak
- Saioak udal-ordezkariekin

AURREKARIAK

Proiektua diagnostiko-fasea hasi baino lehen abiarazi zen. Udalerriko adineko pertsonen bi elkarteetan lankidetzaren erraztuko zuen lan komunaren bilaketan, Hiri Lagunkoia proiektuari ekiteko aukera proposatu zen.

Horretarako, hasierako lantaldea eratu zen, elkarteetakoak ez ziren pertsonen eta bi elkarteetako kideek osatutakoa. Lantaldea 2016. urtean zehar lanean aritu zen proiektua martxan jartzeko.

Hala, egindako lanaren emaitza gisa, proposamena idatzi eta Udalari aurkeztu zitzaion. Udalbatzak bere gain hartu zuen proposamena eta 2017ko apirilko osoko bilkuran aho batez onartu zuen Abadiño Hiri Lagunkoien Munduko Sarera atxikitzea.

Proiektua idatzi zuen hasierako lantaldea proiektuaren talde eragile bihurtu zen. 2017ko irailean, Talde Eragilea Maraka enpresarekin lan egiten hasi zen, enpresa hori kontratatu baitzuen Abadiñoko Udalak diagnostikoa garatzeko.

TALDE ERAGILEA

Talde eragilearen lana aktiboa eta lankidetzan oinarritutakoa izan da. Aurrez aipatu den bezala, Talde Eragilea udalerrian dauden erretiratuen bi elkarteetako kideek, elkarteek kanpoko pertsonen, zinegotzi batek eta udal-teknikari batek osatuta dago.

Proiektua zehaztu eta abiaraztea Talde Eragilearen eta Marakaren arteko lankidetzaren bidez gauzatu da. Beraz, aldizkako batzarrak egin dira, saio parte-hartzaile bakoitzaren ostean elkarren artean prozesuko hurrengo urratsak zehazteko.

Gainera, Talde Eragileak honako zeregin hauen ardura izan du:

- Komunikabideekin harremana izatea.
- Euskadi Langunkoia blogean artikulua argitaratzea.
- IMSERSOrekin harremana izatea, Espainian OMEren ordezkaria baita.
- Proiektuan parte hartzen duten pertsonen koordinazioa eta barneko komunikazio-prozedurak.
- Deialdiak hedatzea.
- Bileretako azpiegiturak eta logistika.

BIGARREN MAILAKO ITURRIEN AZTERKETA

Datu kuantitatiboak biltzeko bidea da. Alde batetik, Abadiñoko Udalaren planak, programak eta diagnostikoak aztertu dira, eta bestetik, EUSTAT, INE eta Abadiñoko Udalaren datu soziodemografikoak jaso dira.

Azterketa honetatik, Abadiño Lagunkoia proiektuaren diagnostiko-prozesuan erabiltzeko datu eta kontzeptuak bildu dira.



13. irudia: Abadiño Lagunkoia proiektuaren bigarren saioko parte-hartzaileak

Honako agiri hauek aztertu dira:

- HAPOk dokumentazioa (2017)
- Udal-jasangarritasunari buruzko Abadiñoko diagnostikoa (2006)
- Emakume eta Gizonen arteko Berdintasunerako Planaren eta egungo egoeraren Balantze-txostena (2015)

SAIO PARTE-HARTZAILEAK

Diagnostikoa sortzeko ekintzarik garrantzitsuena prozesu parte-hartzailea izan da. Prozesuari esker, partaidetza-maila desberdinak sortu dira, pertsonen beharrak eta gaitasunak kontuan hartuta.

Prozesu nagusiaren barruan 10 saio egin dira. Saio horietan 60 urtetik gorako pertsonen parte hartu dute, lau foku-taldetan banatuta (8-10 pertsona foku-talde bakoitzean). Prozesu parte-hartzailean 36 pertsonen parte hartu dute batez beste. Pertsona gehien batu ziren saioan 45 pertsonak parte hartu zuten eta pertsona gutxien batu ziren saioan 31 pertsonak.

Teknikariek proposatutako dinamiken bidez, adineko pertsonak arduratu dira udalerriko ahulguneak eta alderdi positiboak identifikatzeaz (fisikoak, zein beste abstraktuago batzuk) eta hobekuntzak zehazteaz.

Udalerriko errealitatea kontuan hartuta (hiru gune handitan banatua), saioak txandaka egin dira Matienako Errota Kultur Etxean eta Zelaletako San Trokaz Nagusien elkartean. Berariaz prozesurako diseinatutako dinamika eta txantiloien bidez, OMEk proposatutako zortzi gaiak aztertu dira, adineko pertsonen ikuspegia kontuan hartuta. Gainera, saioetako bat aire zabalean egin da, Abadiñoko leku lagunkoia eta lagunkoia ez direnak identifikatu eta horiei argazkia ateratzeko. Era berean, jarduera horrek proiektuari ikusgarritasuna eman zaio kaler.

Azterketa horri esker, udalerriko alderdi lagunkoia eta lagunkoia ez direnak identifikatu dira. Halaber, hobetzeko proposamenak egin dira lagunkoia ez diren alderdiak eraldatzeko.

Ikerketa osatzeko, saio bereziak egin dira, Nagusilagun programan parte hartzen duten 80 urtetik gorako pertsonekin, mendekotasun-egoeran dauden pertsonak zaintzen dituzten pertsonekin, Mendiola, Gerediaga, Gaztelua eta Urkiola auzoetako adineko pertsonekin eta adineko pertsonentzako zerbitzuen inguruan lan egiten duten zerbitzu hornitzaileekin.

80 urtetik gorako pertsonekin egindako saioa

80 urtetik gorako oso pertsona gutxi parte hartu dute. Arrazoi desberdinak direla-eta, baina batez ere pertsona hauen gero eta ahultasun handiagoagatik, eta horrek zaildu egiten du pertsona horiek foku-saioetan parte



14. irudia Mendiola auzoko saioa

hartzea. Horregatik, eta kolektibo horren iritzia entzun eta ulertzeak duen garrantzia kontuan hartuta, pertsona horientzako berariazko saioa eratu da. Matienako Nagusilagun programako saio bat aprobetxatu da pertsona hauekin egon ahal izateko. 10 pertsonak parte hartu dute, horietatik 8 emakumeak izanik.

Zaintzaileekin egindako saioa

Saio hau mendekotasuna duten pertsonak zaintzen dituzten pertsonekin egin da. Parte hartu duten pertsona gehienak Zaindu programaren barruan daude. Adineko pertsonekin hain lotura estua duten pertsona hauen errealitatea ezagutzea, eta dituzten arazoak eta euren proposamenak jasotzea izan da saio honen helburua.

Mendiola, Gerediaga, Gaztelua eta Urkiola auzoetako saioak

Lehenago aipatu den bezala, Abadiño hedadura handiko udalerria da, eta hiriguneetatik urrun dauden landa-eremuak ditu. Hala, auzo horietako adineko pertsonak zailtasun handiagoak izan ditzakete saioetara joateko. Horregatik, auzoetan saio bereziak egin dira. Oso interesgarritzat jo da landa-auzo urrunagoetan bizi diren adineko pertsonak eduki ditzaketen arazoak ezagutzea.

Mendiolako saioetan 10 pertsonak parte hartu dute, eta diagnostikoaren lehenengo fasean aztertuko diren lau gaiak landu dira. Parte hartu duten 10 pertsonetatik 5 emakumeak dira, eta 5 gizonak, 3 Sagasta auzokoak eta 7 Mendiola auzokoak.

Gaztelua, Gerediaga eta Urkiolako saioetan zortzi



15. irudia: Gaztelua auzoko saioa

gaiak aztertu dira, diagnostikoaren bigarren fasean egin baitira saiook.

Gerediagako saioan bi emakume izan dira parte hartu dutenak. Gazteluako saioan 13 pertsonak hartu dute parte, 5 emakume eta 8 gizonak, Bestalde, Urkiolako saioan, 6 pertsonak parte hartu dute, 4 gizon eta 2 emakumek.

Zerbitzu-hornitzaileekin egindako saioa

Garrantzitsua da zerbitzu-hornitzaileek adineko pertsonen buruz duten ikuspegia ere ezagutzea. Horretarako, bi ordutako saioa egin da eta 12 pertsonak parte hartu dute bertan, 7 emakume eta 5 gizonak.

Honako hauek parte hartu dute batzarrean: Abadiñoako gizarte-langileak, Mankomunitateko hirugarren adineko pertsonentzako zerbitzuaren arduradunak, Zaindu programaren arduradunak, etxeko laguntza-zerbitzurako laguntzaileak kontratatzen dituen enpresako gizarte-langileak, Abadiñoako medikuak, Udaleko arkitektoak, Euskara teknikariak, Gazteria eta Berdintasun arloko teknikariak, Matienako Nagusilagun taldeko begiraleak, merkatarien elkarteko zuzendariak eta gizarte ongizateko udal-zinegotziak.

Foku-taldeek zehaztapenera bueltatuz, prozesuan Vancouverreko Protokoloak proposatutakoak erabili dira. Hurrengo taulan deskribatzen da foku-taldeetako bakoitza:

Taldeak	Adina/Ezaugarriak
GF-1	60 - 70 urte
GF-2	60 - 70 urte
GF-3	60 - 70 urte
GF-4	70 urte baino gehiago
GF-5	80 urte baino gehiago
GF-6	Mendiola
GF-7	Zaintzaileak
GF-8	Zerbitzu-hornitzaileak
GF-9	Gerediaga
GF-10	Gaztelua
GF-11	Urkiola

UDAL ORDEZKARIEKIN EGINDAKO SAIOAK

Proiektuak udal-izaera duela kontuan hartuta, garrantzitsua izan da Udalarekin etengabe harremanetan egotea.

Hainbat batzar egin dira Gizarte Ongizateko Batzordearekin, zuzeneko informazioa izan zezaten. Beraz, Udalbatzari, prozesuko 10. saiora etortzeko gonbidapena luzatu zaio. Batzar horretan, amaiera eman zaio diagnostikoaren faseari.

Horrez gain, Talde Eragileak Udal Talde guztiekin biltzeko gogoazazaldu du, proiektuari buruzko informazio zehatza eman eta eduki ditzaketen galderei erantzuteko. Hortaz, hala eskatu duten Udal Taldeekin batzarrak egin dira.

ELKARRIZKETAK

Elkarrizketen helburua prozesu parte-hartzailean bildutako informazioa osatzea izan da, eta horrela udalerriko errealitatearen irudi osoago bat sortzea. Elkarrizketa egin zaien pertsonak adineko pertsonen kolektiboarekin loturaren bat duten eragileak izan dira.

Elkarrizketak	Perfilak
E-1	Mankomunitateko adineko pertsonen zerbitzuko arduradunak
E-2	Gizarte-langileak
E-3	Zaindu programaren arduraduna



16. irudia: Urkiola auzoko saioa



17. irudia: kalean egindako saioan erabilitako materiala



18. irudia: foku-taldeekin egindako saio parte-hartzailea

PARTAIDETZA

Prozesuan adineko 90 pertsonak parte hartu dute guztira. Foku-taldeekin egindako saioetan (10 saio) 36 pertsonak parte hartu dute batez beste. Orrialde honetako taulan ikus daitekeen bezala, emakumeen partaidetza handiagoa izan da ia saio guztietan.

Adinari dagokionez, talderik handiena 60 eta 70 urte bitarteko pertsonena izan da.



19. irudia: eremu publikoan egindako miaketa-saioa


02. taula: Abadiño Lagunkoia prozesuko partaidetza

Saioak	Data	Parte-hartzaile kopurua	Emakumeak	Gizonak
Aurkezpena	2017. 09. 26	18	10	8
1. saioa	2017. 10. 25	41	23	18
2. saioa	2017. 11. 08	34	17	17
3. saioa	2017. 11. 29	37	17	20
4. saioa	2017. 12. 13	37	19	18
5. saioa	2018. 01. 10	32	17	15
+80 saioa	2017. 11. 28	10	8	2
Mendiolan saioa	2017. 12. 20	10	5	5
6. saioa	2018. 01. 31	37	19	18
7. saioa	2018. 03. 07	32	17	12
8. saioa	2018. 03. 21	35	18	17
9. saioa	2018. 04. 25	31	17	14
10. saioa	2018. 05. 30	45	25	20
Gerediagan saioa	2018. 06. 20	2	2	0
Gazteluan saioa	2018. 06. 28	13	5	8
Urkiolan saioa	2018. 09. 13	6	2	4


PARTE HARTZAILEEN PROFILA

Hurrengo grafikoetan parte-hartzaileen profilak definitzen dituzten ezaugarriak agertzen dira. Datuak 72 parte-hartzailek betetako inkestaren bidez bildu dira.


SEXUA




ADINA




EGUNGO LAN EGOERA



EGUNGO OSASUN EGOERA
(NORBERE IRITZIA)




IKASKETAK




- Ikasketarik gabe
- Lehen Hezkuntza
- Bigarren Hezkuntza
- Unibertsitate Hezkuntza

ETXEBIZITZA MOTA




- Alokairua
- Jabetza

EGOERA SOZIOEKONOMIKOA ETXEBIZITZAKO



- 700 euro baino gutxiago hilean
- 700 eta 1.00 euro artean hilean
- 1.00 eta 1.500 euro artean hilean
- 1.500 euro baino gehiago hilean

ETXEBIZITZA BAKOITZEAN BIZI DEN PERTSONA KOPURUA



6 EMAITZAK

ALDERDI POSITIBOAK, NEGATIBOAK ETA HOBETZEKO PROPOSAMENAK

Prozesuan zehar hobetzeko 148 proposamen jaso dira guztira, udalerriko hainbat alderdiri buruzko balorazio positibo eta negatiboez gain.

Aztertu diren gaiak OMEk proposatutako zortzi gaiak izan dira:

- Aire zabaleko espazioak eta eraikinak
- Garraioa
- Etxebizitza
- Gizarte eta osasun zerbitzuak
- Herritarren partaidetza eta lana
- Errespetua eta inklusioa
- Partaidetza eta gizarte sarea
- Komunikazioa eta informazioa

Oro har, balorazio gehiago bildu dira proposamen berriak baino, errazagoa baita beti dagoena baloratzea proposamen berriak egitea baino. Hala ere, egindako proposamenak asko eta oso interesgarriak izan dira.

Nabarmendu beharra dago, orokorrean, Abadiño adineko pertsonak ondo bizi daitezkeen lekutzat hartzen dutela, eta oso pozik daudela eskaintzen zaizkien zerbitzuekin.

Ondoren, gai bakoitzarentzako egindako balorazio eta proposamenen laburpena aurkezten da.

«**Aire zabaleko eta eraikinak**» atalean, espazio publikoaren eta hiri-altzarien garbitasuna eta mantentze-lanak izan dira balorazio txarrena jaso duten kontzeptuak, txakurren kaken arazoarekin batera. Egoera hau hobetzeko, mantentze-lanen plangintza hobetzea eta animalien kaka batzeaz arduratzen ez direnetan

Atal honetan, burutu den prozesu parte-hartzailearen bidez lortutako emaitzak erakusten dira.

Hiru emaitza mota desberdindu ditzakegu:

- Alderdi positiboak, negatiboak eta hobetzeko proposamenak.
- Lagunkoitasunari buruzko galdetegiaren emaitzak.
- Zerbitzu-hornitzaileen emaitzak.

«Alderdi positiboak, negatiboak eta hobetzeko proposamenak» atalean, prozesuan parte hartu duten 60 urtetik gorako pertsonen ekarpenak jasotzen dira, tauletan antolatuta eta aztertu diren gaien arabera banatuta.

«Lagunkoitasunari buruzko galdetegiaren emaitzak» atalean, udalerrian zehar banatu diren inkesten bidez lortu diren ondorioak jasotzen dira. Euskadi Lagunkoia programak diseinatutako inkesta da, udalerriek erabil dezaten, udalerriko lagunkoitasun-maila neurtu ahal izateko.

«Zerbitzu-hornitzaileen emaitzak» atalean, prozesuan zehar gauzatu den saio parte-hartzailean lortu diren ondorio orokorrak biltzen dira.



20. irudia: kafea hartzeko etenaldia saio parte-hartzaileetako batean.

esku hartzea proposatzen dute.

Gai honetako beste atal garrantzitsu bat eraikin publikoetan irisgarritasuna hobetzea eta udalerriko gune desberdinetan komun publikoak jartzeko beharra dira.

Gainera, garrantzitsua da Abadiñoko hirigintza-konfigurazioa dela eta, parte-hartzaileek desberdintasun asko ikusten dituztela hiriguneen artean, eta baita hiriguneen eta baserri-auzoen artean ere.

«Garraioaren» gaia, batez ere garraio publikoarena, oso modu positiboan baloratzen dute, udalerria oso ondo komunikatuta dagoela uste baitute.

Trafikoaren abiadura moteltzea gustatuko litzaieke, segurtasuna gehitzeko, eta semaforoak biribilguneengatik ordezkatzeko proposatzen dute.

«Etxebizitza» izan da erantzun gutxien jaso dituen gaia, baina hala ere, zeresana sortu du. Pertsona gehienek ustez, zahartzerakoan etxeak handiegiak bihurtzen dira eta egoera berrira egokitzeko beharra sortu ohi da. Horretarako, dauden laguntza eta aukerei buruzko informazio gehiago eskatu dute.

«Gizarte eta osasun zerbitzuak» oso positiboki baloratzen dira. Zentroetako zerbitzu mediko ona azpimarratzen dute, medikuak etengabe aldatzen direlako kexatzen diren arren.

Pertsona gehienek eskura dituzten gizarte-

zerbitzuei buruzko informazio falta duela diote. Zerbitzuei eta beren erabilgarritasunari buruzko informazio gehiago eskatzen dute.

«Herriarren partaidetza eta lana» gaian, boluntariotzaren gaia izan da gehien eztabaidatu dena. Oso modu positiboan baloratzen dira udalerriko elkarteak; adineko pertsonak bi elkartetako kide dira. Boluntariotzaren ikusezintasuna eta balorazio-falta azpimarratzen dute eta boluntariotza sustatzea proposatu dute, laguntza-sareen sorkuntzaren bidez. Iritzia eman eta erabakiak hartzeko foroetan parte hartzeaz ere hitz egin dute. Berebiziko garrantzia duela uste dute mota honetako guneak sortzeak, bai adineko pertsonentzako, bai herriarrentzako, oro har.

«Errespetua eta inklusioa» gaian, gizarteak orokorrean duen gizabide-hezkuntzaren falta azpimarratzen dute. Halaber, hainbat bitartekoaren bidez gizarteari helarazten zaion adineko pertsonen irudia aldatu behar dela uste dute, ez baitator bat errealitatearekin. Proposamen interesgarri bat adineko pertsonen elkarteetako jarduerak udalerrri osoari zabaltzea da, jende gehiago bertaratu dadin.

«Partaidetza eta gizarte sarea» gaiari dagokionez, oso modu positiboan baloratzen dute udalerriko eskaintza, baina makal dauden pertsonak jarduera hauetan barne hartzeko beharra azpimarratzen dute, isola ez daitezen. Pertsona hauei etxetik irtetea eta beste pertsona batzuekin batera aisialdiko jardueretan parte hartzea animatzea proposatzen da.



21. irudia: espazio publikoan egindako saioa

Azkenik, **«Komunikazioa eta informazioa»** gaian, modu positiboan baloratzen dute InfoAbadiño, orain dela urte batzuk abiarazi zen noranzko biko komunikazio-zerbitzua. Hala ere, dagoeneko ez dagoela martxan diote, eta berriz ere abiaraztea proposatzen dute.

Errota Kultur Etxean eta Mediatekan eskaintzen den informazioa hobetzea proposatzen dute. Horrez gain, pantaila interaktiboa jartzea proposatzen dute.

Beste proposamen interesgarri bat irakurmen erraza txertatzea da udalerriko dokumentu guztietan.

Laburpena egin ondoren, prozesuan zehar egindako hobekuntzarako proposamen eta balorazio guztiak zehazten dira.



AIRE ZABALEKO ESPAZIOAK ETA ERAIKINAK

AZPIGAIK	ALDERDI POSITIBOAK	ALDERDI NEGATIBOAK	PROPOSAMENAK
OROKORRA	- Astola Abadiño «bateratzen duen auzoa» da. - Kiroldegia Matiena eta Zelaieta auzoen artean dago. - Abadiño laua da eta paseoa errazten du. Askok paseatzen da. - Matiena eremu eroso da. - Abadiño ondo komunikatuta dago, kokapen geografiko ona du. - Behin udalari dauden arazoak jakinarazi ondoren, nahiko arin konpontzen dituzte.	- Biztanleria oso sakabanatua: Muntzaratz, Zelaieta, Astola, Matiena, Mendiola, etab. (hala ere aldatzen ari da). - Udalerrri bera, identitate desberdinak: Abadiño-Zelaieta eta Matiena. Pertsona batzuentzako bi udalerrri desberdin dirudite. - Udalerria bananduta haztea ez da lagungarria izan auzoen arteko kohesiorako. - Udalerriko mantentze-lanak ez dira egokiak: - Belarra moztu dutenean, ez da biltzen. - Garbiketa, argiztapena (bonbillak aldatzea), espaloia apurtuta daude, etab. - Arropa-edukiontzien inguruan, arropa asko egoten da lurrian botata. - «Ez bada jakinarazten ez da egiten». - Klean txakurrak solte ibiltzen dira (handiak eta txikiak). - Matiena «nagusientzako» auzoa izango da.	- Udal eta herritarren arteko komunikazio-bideei buruzko informazioa ematea, mantentze-lanen arloan dauden beharrak edo espazio publikoan egin behar diren konponketak jakinarazteko. Argidun panelak erabil litezke. - Herritarren lankidetzaren sustatzea arazoak udalari jakinarazteko. - Arduradun bat izendatzea udalari arazoak jakinarazteko. - Udaltzaingoari jakinarazteko aukera, gero udaltzaingoak udalari jakinaraz diezaien.
ERAIKIN PUBLIKOAK	- Udaletxea: obren ostean irisgarritasuna hobetzea espero da. - Orokorrean, eraikuntza publikoak irisgarriak dira. - Herritarrei Arreta eskaintzeko Matienako bulegoa beheko solairuan dago, eta ondo dago. - Hainbat zerbitzu bikoiztuta daude bi gunetan: Matiena eta Zelaia.	- Kiroldegia: - Ez du igogailurik lehen solairura igotzeko. - Prezio garestiak. - Liburutegia: liburu batzuk goiko aldean daude eta ez dira ikusten edo ezin daitezke hartu. - Mediateka: Ez da irisgarria. - Errota Kultur Etxea: sarrera nagusiak malda handia du mugitzeko zailtasunak dauzkaten pertsonentzako (makilak erabiltzen dituztenak, ibiltzeko zailtasunak etab.), zein gurgildun aulkia erabiltzen dutenentzako, eta beste sarrerak eskailerak bakarrik ditu. - Osasun-zentroa: Sarrerako ateak ez dira erraz irekitzen. Indarra egin behar da eta adineko pertsonen edo mugikortasun urriko pertsonen arazoak izaten dituzte. - Gerediagako ermita: ez da erraza bertara iristea gurgildun aulkia erabiltzen duten pertsonentzako.	- Osasun-zentroak: ate automatikoak jartzea sarreretan. - Pertsona nagusienak eta ahulenak kontuan hartzea espazioak eta sarbideak diseinatzerakoan.



AIRE ZABALEKO ESPAZIOAK ETA ERAIKINAK

AZPIGAIK	ALDERDI POSITIBOAK	ALDERDI NEGATIBOAK	PROPOSAMENAK
ESPALOIAK	- Espaloi berriak oso ondo daude, zabalak eta erosoak dira. - Matienako eremua nahiko irisgarria da. - Geu be, desgaitasun psikikoa duten pertsonen Durangaldeko elkarteak irisgarritasunaren arloko puntu kritikoak identifikatu zituen.	- Baldosak aske daude eremu askotan. Adb.: Muntzaratz-Zelaieta paseoko espaloia. - Zelaieta: - Zelaietako «Ferialekuko» espaloiak egoera txarrean daude. - Zaila da handik gurpildun aulkian ibiltzea. - Euria egiten duenean baldosek labain egiten dute. - Espaloiak oso estuak dira. - Terrazek espaloi osoa hartzen dute, eta sarritan espaloitik doan jendea errepidera edo lorategira irten behar da pasatzeko. - Espaloiek ez dute beheragunerik, orokorrean inon ere ez (gurpildun aulkiarekin jaisteko). - Matienan garaje bezala erabiltzen diren lonja asko daude. Autoa erabiltzeko espaloitik pasatu behar da eta batzuetan ikusgarritasun eskasa dago. - Petite liburu-dendako eremua egoera txarrean dago. - Durango-Matiena: bizikletek espaloia erabiltzen dute. - Txakurren kakak daude. - Matiena-Lebario tartea: 120 metro errepidetik egin behar dira. - Edukiontziek espaloiak txikitzen dituzte.	- Solte dauden baldosak konpontzea. - Espaloiei beheraguneak jartzea irisgarritasuna bermatzeko. - Matiena-Lebario tartea: pasabidea jarri eta espaloira sarbidea uztea. - Edukiontzia "blokeatzeko" moduak pentsatzea.
BIDEGORRIA (bizikleta eta oinezkoak)	- Muntzaratz-Zelaieta: berria da eta egoera onean dago. - Durangorantz doan bidegorria asko erabiltzen da eta ondo dago. - Matienatik Zelaietara doan paseoa asko hobetu da kamioiak pasatzen ez direnetik.	- Jendeak ez ditu oinez ibiltzeko erabiltzen, aurreratzeko bakarrik (espaloitik joanez gero). - Astolako bidegorria: - Errepidearen erditik pasatzen da, arriskutsua da txirrindularientzako. - Trañara heltzean amaitu egiten da eta bizikletak espaloira sartu behar izaten dira. Ez dago amaituta, eta horrek segurtasun-arazoak sortzen ditu bizikletentzako eta oinezkoentzako. - Astolara sartzeko zubia: oso estua da eta autoak igaro daitezke. Gune arriskutsua da oinezko eta txirrindularientzako.	- Astolako bidegorria: bidea aldatu eta alde batean jartzea. Trañatik. - Muntzaratzeraino paseo bat egitea ibaiaren ertzetik. - Astolako zubia: txirrindulari eta oinezkoek erabiltzeko bakarrik.



AIRE ZABALEKO ESPAZIOAK ETA ERAIKINAK

AZPIGAIK	ALDERDI POSITIBOAK	ALDERDI NEGATIBOAK	PROPOSAMENAK
BIDEGORRIA (bizikleta eta oinezkoak)		- Orokorrean bidegorri zatien arteko lotura falta. Adb.: Muntzaratz-Zelaieta zatia. - Bidegorriko piboteen erdia puskatuta daude. - Mcdonald's ondoko tunelean estoldak kolapsatzen dira eta euria egiten duenean putzu handiak sortzen dira.	
BERDE-GUNEAK	- Berdegune asko daude eta paseatu egin daiteke. - Parkeak ondo zainduta daude. - Eroski dagoen parkea: oso ondo dago, orain dela gutxi konpondu da.	- Astolako piknik-gunea: bizikidetza-arazoa dago. Jende asko egoten da. lekua zintekin okupatzen dute eta musika oso ozen jartzen dute. Bolumena jaisteko esaten zaienean ez dute kasurik egiten. - Parkeak txakurren kakez beteta daude. - Txakurrak aske ibiltzen dira, araudiak lotuta ibili behar direla dioen arren. - Muntzaratzeko piknik-gunea: - Txakurrez beteta egoten da. - Ibaiaren eremua arriskutsua izan daiteke. - Ez dago komun publikorik. - Ez dago gerizperik. - Gazteluan udal-basoa dago, abandonatuta.	- Astolako piknik-gunea: bizikidetzarako arauak ezartzea karteekin edo beste bitarteko batzuekin. - Muntzaratz: - Konponbideak inplementatzeko aukera, ibaialdean egoera arriskutsuak ekiditeko: kontzientziazioa hesiak, etab. - Metodoak pentsatzea, pertsonen euren txakurren kaka jaso ditzaten. - Berdeguneetan txakurrentzako araudia zorrotzago aplikatzea. - Txakurrentzako eremuak ezarri eta horiei buruzko informazioa ematea. - Ortu sozialak sortzea gazte eta adinekoentzako. - Barbakoa gehiago jartzea. - Gazteluako udal-basoa egokitzea herritarrek erabil dezaten.



AIRE ZABALEKO ESPAZIOAK ETA ERAIKINAK

AZPIGAIK	ALDERDI POSITIBOAK	ALDERDI NEGATIBOAK	PROPOSAMENAK
PLAZAK / PARKEAK	- Tabernak plaza eta parkeen inguruan daude. - «Ferialekuko» plaza oso plaza ona da, asko erabiltzen da eta atsegina da. - Oro har, plazak ondo daude. - Parkeak asko hobetu dira. Zabu guztiak aldatzen ari dira eta eserleku asko daude.	- Mendiko ibilbideak ahaztuta daude. - «Sola» taberna dagoen plaza bizia da baina gurasoentzat pentsatuta dago, eta ez umeentzako. - Parke osasungarriak: gutxi erabiltzen dira, honako arrazoi hauengatik: - Ez dago mantentze-lanik. - Ez dira egokiak adineko pertsonentzako, askok ez dakite nola erabili. - Pertsona batzuk (batez ere erretiratuak) lotsatu egiten dira beste pertsona batzuek hor ikusiz gero. - Muntzaratz: ez dago umeentzako parkerik.	- Mendiko ibilbide leunenak sustatzea, eserlekuak jarritz. - Udalak antolatzen duen «Mantentze-gimnasia» jardueran parke osasungarriak erabiltzen ikasteko jardueraren bat egitea.
HIRI-ALTZARIAK	- Instalatu berri diren eserlekuak ondo daude. - Iturri asko daude.	- Edukiontziaik: - Organikoak: gutxi daude eta txarto banatuta daude. - Ez dira egokiak adineko pertsonentzako, pedala altuegi dagoelako. - Arropa: beti beteta daude. - Muntzaratzen errepidea gurutzatzerakoan ikusgarritasuna kentzen duten edukiontziaik daude. - Edukiontziaik solte daude eta haizea dabilenean mugitzeko arriskua dago, edo pertsonak ere mugi ditzakete. - Orain dela gutxi Matienako Plaza Gorrian nolako eserleku eta altzariaik jarriko ziren erabaki zen. Ez zen partaidetzarik egon, eta gero eserlekuei buruzko kexak egon dira (hotzak eta deserosoak dira, eta ez dira erabiltzen). - «Erliako» telefono-zutabea beti erorita dago.	- Aurrez aurre dauden eserlekuak jartzea pertsonen arteko elkarriketa sustatzeko. - Zabor-edukiontziaik zurezko kutxa handietan «ezkutatzeta» garbi-itxura emateko eta haizetik babesteko. - Errota Kultur Etxearen aurreko parkean iturria jartzea.



AIRE ZABALEKO ESPAZIOAK ETA ERAIKINAK

AZPIGAIK	ALDERDI POSITIBOAK	ALDERDI NEGATIBOAK	PROPOSAMENAK
AUZOAK	- Natura betean bizitzeko eremu lasaiak dira. - Urkiola: bideen garbiketa hobetu egin da elur-sasoian.	Alderdi orokorrak: - Edukiontzia: - Etxeetatik urrun eta :«errefusa» bakarrik jasotzen dute. - Saltoki handien eraginez denda txikiak ixten ari dira. - Desberdintasunak hautematen dira Abadiñoko bi hiriguneen artean: Zelaieta abandonatuta dago eta Matiena zainduago dago. - Postontzi zentralizatuek: - Nahasketak eragiten dituzte maiz. - Postontziak etxeetatik urrun daude. - Auzoetako arekak zikin daudenez, itxi eta gainezka egiten dute. Auzoka: - Muntzaratz: - Beheko solairuetako fatxadak egoera txarrean daude, obrako fatxadak dira, adreiluekin. - Aire-kutsadura handia dago (fabrikengatik). - Zelaieta: - Oinezkoentzako zubia labainkorra da euria egiten duenean. - Estoldak itxi egiten dira hostoekin. Errepide nagusitik hurbil dagoen etxe hutsa, aldarmioek eusten dute eta segurtasun-eza sortzen du. - Mendiola: - Desberdintasunak daude auzoetako zerbitzuen eta erdiguneko zerbitzuen artean. - Mendiolarantz doan errepidea egoera txarrean dago oinezkoentzako, eta erortzen ari da. - Gaztelua: - Ez da konpondu saneamenduaren arazoa. - Saihesbideko tunelek zarata handia sortzen dute autoak igarotzen direnean. - Sagasta: - Edukiontzirik ez dagoenez, Mendiolarantz jaitsi behar da zaborra botatzeko. - Gerediaga: - Errepide nagusiaren gainean dagoen metalezko sareta egoera txarrean dago. Oso erraza da estropezu egin eta erortzea. - Argiztapena ez da egokia.	- HAPO berriak Matiena eta Zelaieta batzeko nahia adierazi behar du - Muntzaratz: - Beheko solairuetako fatxaden estetika errespetatzera behartu behar da. (Elorri bezala). Udalaren eskakizuna. - Enpresei kutsadura-kontrol gehiago eskatzea. - Solozabal kalea hobetzea. - Landa-auzoetan bizi diren herritarren beharrak gehiago kontuan hartzea. - Kexaren baten kudeaketa udalarena ez bada, jokatzeko moduari buruzko argibideak eman ditzake. - Urkiola: - Udal-panela jartzea, ohar garrantzitsuak bertan ipintzeko.



AIRE ZABALEKO ESPAZIOAK ETA ERAIKINAK

AZPIGAIK	ALDERDI POSITIBOAK	ALDERDI NEGATIBOAK	PROPOSAMENAK
AUZOAK		- Urkiola: - Udalaren informazio gutxi jasotzen dute. - Estolderia ordaintzen dute baina ez dute inolako saneamendu-mantentzerik, eta eurak arduratzen dira putzu septikoa garbitzeaz. - Wifi eta telefono estaldura eskasa. - Ez dute jarduera kulturalik San Antonio eguneko jaia izan ezik.	
KOMUN PUBLIKOAK	- Udan Astolan komun eramangarriak jartzen dira.	- Abadiñon ez dago irekita dagoen komun publikorik.	- Astolan komun finkoa jarri. - «Ferialekun» komun finko bat jartzea. - Zelaietako frontoian dauden komunak irekitzea, frontoia irekita dagoen orduetan.
IBILGAILUEN ZIRKULAZIOA	- Matienan trafiko-seinaleak gehiago errespetatzen dira udaltzain gehiago daudelako. Gainerako lekuetan umeak eskolara doazenean bakarrik egoten dira.	- Muntzaratz: - Autoek zebrabidean aparkatzen dute (lehen piboteak zeuden eta orain ez). - Sarreran dagoen semaforoak itxarotendebora luzea du, gorri dago eta ez da inor igarotzen. - Arrankurritik erdigunera jaisteko errepide nagusia gurutzatu behar da. Autoak oso azkar igarotzen dira. - Baeschlin etorbidea: autoak oso azkar igarotzen dira. - Zelaieta: - Trafikoa “probalekutik” desbideratu da eta orain askoz ere trafiko gehiago dago erdigunean. - Erretiratuen lokalaren aurretik autoak oso azkar igarotzen dira batzuetan. - Jende gutxik errespetatzen ditu trafiko-seinaleak (norabide debekatua adierazten duen erretiratuen lokal aurreko seinalea ez da errespetatzen). - Zelaieta eta Muntzaratz arteko semaforo-sistema ez dago ondo: Mendiolara joateko Zelaietaraino joan behar da. - «Probalekua» eta erretiratuen tabernaren artean «biribilgune lauki» bat dago. - Matiena: Trafiko handia dago, kamioi ugari igarotzen dira. - Igerilekuan, aparkatuta dauden autoek espaloia hartzen dute. - Batzuetan oinezkoek ez dituzte semaforoak eta zebrabideak errespetatzen. - 30 km/h eta 20 km/h abiadura ibili behar den eremuak daude, ez dira errespetatzen.	- Muntzaratz; Semaforoaren arazoa konpontzea. - Iurreta-Matiena autobidea doan izatea. - Baeschlin etorbidean: maldak, sakanguneak, etab. jartzea. - Muntzaratz: semaforoak biribilguneengatik ordezkatzeta. - Igerilekuak: autoek espaloia hartzea ekiditea. Adibidez espaloian «topeak» jarri.



AIRE ZABALEKO ESPAZIOAK ETA ERAIKINAK

AZPIGAIK	ALDERDI POSITIBOAK	ALDERDI NEGATIBOAK	PROPOSAMENAK
SEGURTA-SUNA ETA ARGIZTA-PENA	- Abadiño segurua da. - Oro har, udalerrria ondo argiztatuta dago. - Argiztapen publikoan led bonbillak erabiltzea aldaketa positibotzat hartzen da. - Zebra-bide asko daude. - Farmazia eta "La bodeguilla" ondoren dagoen bidegurutzearen zebrabide berria ondo dago.	- Matiena: - Farmazia eta "La Bodeguilla"ren artean dagoen zebrabidea zati arriskutsua da errepideak malda baitu. - Lurrazpiko pasabideak: - Askok erabiltzen dira eta argi gutxi dute. - Hortik igarotzeak beldurra ematen du, batez ere gauean. - Erabilienak: «Eroski» albokoak. - Tuneletan lapurreta eta erasoak egon direla esaten da. - «Eroski» alboko biribilgunearen alboan dauden arrapala batzuk ez daude ondo argiztatuta. - Espaloitik joaterakoan, txakurren uhal luzagarriak ez dira ikusten. - Udaltzainak autoan igarotzen dira auzoetatik ez dute «auzoko poliziaren» lana egiten. - Argiztapena: - Kale-argiak oso altu daude eta led bonbilla berriek ez dute hainbeste argi ematen. - Kiroldigitik Astolako zubira doan bidea txarto argiztatuta eta asfaltatuta dago. - Argiztapena desberdina da lekuaren arabera: Errota Kultur Etxearen inguruetan kale-argiek argi gutxi ematen dute, eta Muntzaratzen, aldiz gehiegi. - Andra Maritik Muntzaratzera doan bidean zuhaitzek kale-argiak estaltzen dituzte. - Gaztainondoaren parkea: kale-argiak aldatu dituzte, oraingoek ez dute ingurua ondo argiztatzen, eta parkea «zatika» argiztatuta geratzen da. - Ez dago berdintasunik argiztapen publikoan, kale-argi batzuk oso zaharrak dira eta asko kontsumitzen dute. - Matienatik Zelaietara doan bidegorria txarto argiztatuta dago (led motakoak direnez besteek ematen zuten argiaren erdia ematen dute). - Txanportan argiztapen eskasa dago. - Eremu batzuetan argi gehiegi ematen dute gauean eta eraikin batzuen leihoetatik hurbil daude. - Gaztelua: errepide nagusia bakarrik dago argiztatuta.	- Argiztapena: berdintasunari eustea, udalerrri osoko argiztapena egokitzea. - Lurrazpiko pasabideak: - Argiztapena berrikusi eta pasabideak ordezkatzeko zerbait egin daitekeen aztertu. - Goitiko pasabideengatik ordezkatu. - Zebra-bideak ondo argiztatuta egon behar dira, zoruan, zein kale-argien bidez.



AIRE ZABALEKO ESPAZIOAK ETA ERAIKINAK

AZPIGAIK	ALDERDI POSITIBOAK	ALDERDI NEGATIBOAK	PROPOSAMENAK
GARBIKETA		- Garbitasun orokorra falta da udalerri osoan. - Kexak Muntzaratzen udaleko garbiketa-zerbitzuko langileren bati buruz. - Ez da biltzen edukiontziaren kanpoaldean dagoena. - Txakurren kakak egoten dira. Ez da araudia betetzen. - Ez dira garbitzen espaloien ertzak, eta landareak hazten dira. - Anbulatorioko plaza: garbitzaile-taldeak garbitzen duen arren, zikin dago. - Kartel asko dago eta ez da egiten mantentze-lanik. - Ez dira errespetatzen zabor-edukiontzien arauak eta pertsona batzuek kanpoan uzten dituzte zabor-poltsak. - Mcdonald's ingurua zikin dago.	- Panel publikoak jarri kartelak ipintzeko, eta horrela fatxadetan eta kale-argietan ipintzea ekidingo da. - Udazkenean garbiketa areagotzea. - Animaliei eta haien kakei buruzko araudia udaletik ezartzea. udaltzaingoaren bidez. - Herritarren artean arauen betearazpena sustatzea, hainbeste ez zikintzeko.



GARRAIOA			
AZPIGAIK	ALDERDI POSITIBOAK	ALDERDI NEGATIBOAK	PROPOSAMENAK
MUGIKOR-TASUNA	- Normalean, oinez egiten dituzte joan etorriak. Mandatuak egiteko autoa hartu ohi dute. - Gazteak Zelaietara joaten ari dira, eta orain joan etorri gehiago egiten dira Matiena eta Zelaieta artean.	- Auzoetan bizi diren eta autorik ez daukaten pertsonak beste pertsona batzuen menpe daude etxetik mugitzeko. - 80 urtetik gorako pertsona batek esandakoa: «lehen oinez 15 minututan egiten nuena egiteko orain ordubete baino gehiago behar dut».	
GELTOKIAK	- Geltoki asko daude, pertsona gehienek geltoki bat dute etxetik hurbil. - Geltokira autobusa hartzeko ordua denean iristen dira, ez dute itxaroten denbora asko ematen.	- Asteburuetan geltokiak aldatu egiten dira. Bilbora zuzenean doan linea kendu egiten da. - Tren-geltokirako sarbidea ez dago egoera onean baina konpondu egingo dute. - Astolako geltokian, Durangorako norabidean, ez dago markesinarik. - Batzuetan autobusak errepidearen erdian gelditzen dira. - Batzuetan autoak daude autobus-geltokietan aparkatuta, eta autobusek ezin izaten dute behar bezala gelditu. - Geltoki berrian estalita dagoen leku bat falta da. - Geltokiak ez daude prestatuta euria denerako eta haizea dabilenerako.	- Geltoki berrian estalitako gunea egokitu.
MAIZTA-SUNA	- Autobusen zerbitzua, zein trenena onak dira.	- Unibertsitatetik itzultzeko puntako orduan arazo asko sortzen dira, jende larregi etortzen da eta autobusetan dauzkaten lekuak baino gehiago betetzen dira.	



GARRAIOA

AZPIGAIK	ALDERDI POSITIBOAK	ALDERDI NEGATIBOAK	PROPOSAMENAK
AUTOBUSA	- Oso ondo dago. - Konexioak onak dira. - Abadiñotik irtetea oso eroso da. - Oro har, oso eroso da eta gehienek erabiltzen dute.	- Autobusen irisgarritasuna: - Bizkaibuseko eskailerak oso altuak dira. - Adineko pertsona batzuei ez die esertzeko astirik ematen autobusa martxan hasi aurretik. - Autobusean jende asko zutik joaten da, eta hori ez da segurua. - Gidari batzuk ez dira gelditzen, pertsona bat datorrela ikusi arren. - Erreklamazioa egitea zaila da: matrikula eta ordua apuntatu eta erreklamazioa egin behar da. - Gurpil-aulkientzako plataformak ez du beti ondo funtzionatzen eta autobus guztiek ere ez dute edukitzen. - Arrazolako lineako autobusak zaharrak izaten dira. - Bilbora joateko, itzulerako azken autobusa oso goiz izaten da eta askotan autoa hartu behar izaten dute. - Zuzen doan autobusa ez da Muntzaratzen gelditzen. - Autobuseko kobratzeko makina apurtzen denean, ez dago txartela erosteko edo laguntza eskatzeko pertsonarik. - Ez dago auzo batetik bestera joateko autobusik.	- Autobusek dituzten arrapalak erabiltzera derrigortzea, adineko pertsonak autobusera igo daitezen. - Bilbora zuzenean joateko geltokia jartzea Muntzaratzen.
TRENA	- Matienako pertsonentzako oso eroso da. - Adineko pertsonentzako autobusa baino irisgarriagoa da. - Bilboko erdiguneraino heltzen da (zazpi kaleak). - Tren geltokia ez dago txarto eta hobetu egingo dute. - Trena garraio hobe da gurpil-aulkian dabilzan pertsonentzako, erosoena da.	- Matienakoak ez direnek autoa hartu behar dute geltokira joateko. - Bilbora joateko, itzultzeko trena oso goiz amaitzen da eta askotan autoa hartu behar izaten dute.	



GARRAIOA			
AZPIGAIK	ALDERDI POSITIBOAK	ALDERDI NEGATIBOAK	PROPOSAMENAK
INFORMAZIOA	- Autobusen ordutegiei buruzko informazioa dago (noiz igarotzen den bakoitza bere geltokitik). - Badakite geltokietan autobusen ordutegiak agertzen diren panelak daudela. - Tren-geltokiko bozgorailurik ordu-aldaketa jakinarazten dira. - Euskotrenek informazio-liburuxkak ematen ditu ordutegiekin. - Durangon arreta eskaintzeko bulegoa ipini dute, hainbat kudeaketa egin ahal izateko.	- Geltokietako taulak ez dira ondo ulertzen (marratuta daude, letra txikia, etab.). - Bizkaibusek ere liburuxka bat eskaintzen du ordutegiekin, baina Durangon hartu behar da. - Garraiobideen aplikazioa ez du jende askok erabiltzen. - Geltokietako panel interaktiboez ez dira fidatzen. Sarritan akatsak ikusi dituztela diote.	
BARIK	- Barik txartel «gorriaren» prezioa oso ondo dago. - «Arruntarekin» ere merkeagoa da. - Barik txartela leku askotan birkargatu daiteke.	- Barik «gorria» adinarekin lotuta dago (65 urtetik gorakoentzat). - Ez dago ondo ikusita pentsio ona duen pertsonak, gazte langabetuak baino gutxiago ordaintzea.	- Barik «gorria» lortzea pertsonen zergen araberakoa izan beharko litzateke.
TAXI	- «Auzotaxi»: ordutegiak, prezioak eta geltokiak ondo daude. - Geltoki bakar bat (Matienan) nahikoa da. - Auzoetako pertsonak oso modu positiboan baloratzen dute zerbitzua.	- Autobus geltokiaren alboan bizi direnei ez dagokie «Auzotaxi» zerbitzua. - Ez da ezagutzen «Auzotaxi».zerbitzuaren ordutegia.	
GIDARIAK	- Parte-hartzaile gehienek gidatu egiten dute oraindik ere, nagusienak izan ezik. - Adineko pertsonak gidabaimena berriztatzen jarraitzen dute. - Autoa auzo batetik bestera joateko, erosketak egiteko, eta abarretarako erabiltzen dute. - Oro har, oinezkoak errespetatu egiten dira.	- Adinarekin erreflexuak eta kontzentrazioa galtzen dira. Segurtasun eza sortzen du, batez ere bidaia luzeetan. - Pertsona batzuk sustoren bat eduki dute eta ez dute gehiago gidatu nahi. - Auzoetako pertsonak arduratuta daude gidatu ezin dutenean gertatuko denagatik.	



GARRAIOA			
AZPIGAIK	ALDERDI POSITIBOAK	ALDERDI NEGATIBOAK	PROPOSAMENAK
BIZIKLETAK		- Oro har, ez dira asko erabiltzen, eta tamalgarria da. - Oso azkar doaz. - Batzuetan auto eta bizikleten arteko egoera arriskutsuak sortzen dira bizikletak erabiltzean. - Txirrindulari eta auto-gidarien arteko errespetua eskasa da (ezjakintasunagatik edo sentsibilitate faltagatik izan daiteke). - Bidegorririk ez dagoenean espaloia erabiltzen dute, eta susto ugari egoten dira. - Zelaieta: bidegorria agertu eta desagertu egiten da. Txirrindulariak espaloitik joaten dira.	- Txirrindulari eta gidarien artean gerta daitezkeen egoera arriskutsuak konpondu ahal izateko informazio- eta sentsibilizazio-kanpainak sortzea.
ZEBRA-BIDEAK	- Sakanguneak beharrezkoak dira eta euren zeregina betetzen dute.	- Pertsonak ez dute begiratzen zebra-bidea gurutzatzerakoan, lehentasuna dutenez begiratu gabe igarotzen dira. - Jende oso gutxi errespetatzen ditu zebra-bideak. - Zelaian tarte handia dago zebra-bide baten eta hurrengoaren artean. - Gerediaga: errepide nagusian dagoen zebra-bideak ez du ikusgarritasunik eta arriskutsua izan daiteke. - Abadiñotik Matienara doan bidean (Txanporta plazatik Errota Kultur Etxera) 10 sakangune daude, eta ez dira onak autoentzako. - Sakangune batzuk altuegiak dira, batzuk txikitu egin behar izan dituzte araudia betetzen ez zutelako. - Botoidun semaforoek denbora asko behar izaten dute oinezkoentzako berde jartzeko. - Zebra-bideek argi gutxi dute.	- Zebra- bideak behar bezala argiztatzea.
SEINALEAK		- Zalantzak daude semaforoan anbar-koloreari buruz. Pertsona batzuk berde egon arte itxaroten dute, anbar dagoenean igaro beharrean. - «Iturritxo» y «Dendarikoa» kaleen artean ez dago argi nork duen lehentasuna. - Batez ere gauez, ez dira gaztetan bezain argi ikusten, eta gehiago gerturatu behar izaten dira. - Muntzaratzeko semaforo-sistema ez dabil ondo. Buelta handia eman behar da leku batetik bestera joateko. Gainera, oinezkoen denbora asko eman behar dute itxaroten trafikorik ez dagoenean. - Panel bertikalak txarto kokatuta daude. Batzuk errepide erdian daudela diote.	- Eremu arriskutsuetan distira-sistema jartzea. - Biribilguneak jartzea semaforoan ordeztu. - «Iturritxo» eta «Dendarikoa» kaleen artean "utzi pasatzen" seinalea jartzea.



GARRAIOA			
AZPIGAIK	ALDERDI POSITIBOAK	ALDERDI NEGATIBOAK	PROPOSAMENAK
APARKA-LEKUAK	- Trañabarreneko TAO zerbitzua oso ondo dabil. - Muntzaratz eta Zelaieta oso leku erosoak dira aparkatzeko. - Matienan aparkaleku asko daude eta nahiko erraza da aparkatzea. - Zelaietako aparkaleku handia urtean behin erabiltzen da, azoka dagoenean.	- Autoa asko erabiltzen da. - Gazteek aparkaleku guztiak kendu nahi dituzte. - Autoz joaten den lekuaren ondo-ondoan aparkatu nahi izaten da. - Muntzaratzen leku asko dagoen arren, autoak bigarren ilaran edo espaloiairean gainean aparkatzen dituzte. - Postetxearen alboan beti daude autoak bigarren ilaran. - Mugikortasun urria duten pertsonentzako Muntzaratzeko aparkalekua (zamalanerako eremuaren eta TAO eremuaren artean) txikiegia da.	- TAO zerbitzua jartzea Txanportan. - Mugikortasun urria duten pertsonentzako Muntsaratzeko aparkalekua handitzea.



ETXEBIZITZA			
AZPIGAIK	ALDERDI POSITIBOAK	ALDERDI NEGATIBOAK	PROPOSAMENAK
ETXEBIZITZA AUKERAK	- Pertsona gehienak pisuetan bizi dira eta gutxienez etxebizitza bat dute jabetzan. - Gidatu dezaketen bitartean etxe batean bizitzea abantaila dela uste dute. - Etxebizitza eskuragarriagoa da Durangon baino. - Matienako jende asko Muntzaratzera joan da bizitzera, bertan dauden babes ofizialeko etxebizitzengatik. Orain jende asko bizi da han. - Muntzaratzeko etxe berrien etxabeetan bizitokiak daude. - Zelaietan alokatzeko aukera dago. - «Alokabide, Bizigune» programa ezaguna da. - Udalerrian babes ofizialeko etxebizitza asko daudela diote. - Etxeren batean okupak daude, ez dute arazorik sortzen, baina euren eraikinean bizi balira ez luketela ondo ikusiko diote. - Etxe zahar gutxi daude hutsik.	- Etxebizitza garestia da Abadiñon. - Ez dago alokairu-eskaintza eskuragarririk. - Ez dago alokairu-kulturarik. - Pertsona batzuk ezin dezakete etxebizitza bat ordaindu. - Ez da ezagutzen etxebizitza sozialaren aukera. - Abadiñon gutxi alokatzen da.	



ETXEBIZITZA			
AZPIGAIK	ALDERDI POSITIBOAK	ALDERDI NEGATIBOAK	PROPOSAMENAK
DISEINUA	- Baserriak: - Patioa, ortua eta berdegunea dute inguruan. - Etxebizitzak egokitu eta irisgarriagoak egiteko aukera gehiago dituzte. - Baserrietan batez ere, erabilera desberdina ematen zaio gune bakoitzari urte-sasoia ren arabera. - Balkoietan loreak jartzen dira. - Muntzaratzen mugikortasun urriko pertsonentzako etxebizitza egokituak daude (bi eraikin bakoitzeko). - Etxebizitzan euren zaletasunak garatzeko guneak dituzte («lantxoak», joskintza, etab.). - Atera/sartu/tolestu daitezkeen altzariak oso egokiak dira etxea egokitzeko ilobak edo beste norbait lotara datorrenean.	- Etxeak handi geratzen zaizkie. Beren beharrak aldatu egiten dira, pertsona gutxiagorekin bizi dira eta leku gutxiago behar izaten dute. - Arazoa izaten da garbitzeko. - Etxeko alde batzuk ez dira erabiltzen. - Trañabarren plazako 13. zenbakiko eraikineko atariak lehenengo solairuan daude. Nahiko malda handia daukate eta baita eskailerak ere. Arazo handia da bertan bizi direnentzako. - Baserriak: bi solairu dituztenen eskailerak dira ardurarik handiena. - Lo egiterakoak ez du edozein burkok balio. - Une batetik aurrera, etxea beharrian berrietara egokitzeko beharra sortzen da: ate lerragarriak, ohe eraigarriak, burkoa, besaulki eraigarria, duxadun bainugela edo beste altzari berezi batzuk. - Sukaldeetako sukalde-gainekoak altuak dira gurgil-aulkia erabiltzen duten pertsonentzako. - Zentzumenak (ikusmena, entzumena, etab.) galtzen hasten direnean, gero eta zailagoa izaten da sukaldean ibiltzea.	- Banakako etxebizitzak diseinatu eta eraikitzea, denentzako garbiketa- eta osasun-zerbitzuekin.



ETXEBIZITZA			
AZPIGAIK	ALDERDI POSITIBOAK	ALDERDI NEGATIBOAK	PROPOSAMENAK
ETXEBIZITZAK EGOKITZEA	- Udalaren eta Eusko Jaurilaritzaren diru-laguntzak daude, etxebizitzak adineko pertsonentzako irisgarri bihurtzeko. - Igogailuak: - Oro har, etxebizitzak ondo egokituta daude. - Udalak igogailua jartzea errazten du. - Errazagoa da baserria irisgarri bihurtzea etxebizitzak baino.	- Zaila da etxebizitzak behar guztietara egokitzea. - Etxebizitza egokitzeko laguntzak oso zorrotzak izaten dira batzuetan. - Bainugela egokitzeko laguntza lortzeko, mendekotasun-maila jakin bat eskatzen da eta bainugela guztiz aldatu behar da (ez bakarrik bainuontzia dutexarengatik ordezkatu). - Igogailua jartzeko derrigortasunak arazoak sortu ohi ditu auzokideen artean. - Igogailua duten eraikin askotan oinez igo behar diren eskailerak ere badaude. - Tximeleta dagoen eraikinean ez dago igogailua jartzeko aukerarik. - Eraikin zaharrenetako ateak estuegiak dira gorpil-aulkiak pasatzeko. - Matienan ez dago desgaitasuna duten pertsonentzako etxebizitza egokiturik, eta horrek alboko udalerrietara joatera behartu ditzake. - Pertsona «ahulek» ezin dituzte zerbitzu ugari erabili gutxieneko mendekotasun-mailarik ez dutelako.	- Erakundeen bitartekaritza auzokideen arteko arazoak konpontzeko (etxebizitzetarako irisgarritasun-kontuetan). - Igogailu guztiak zero kotan jartzea. - Pertsonari gehiago egokituta dagoen etxebizitza-aldaketa. - Pertsona nagusienei (eta ahulenei) etxebizitzaz aldatzen laguntzea merkatu libreran jotzeko beharrik gabe.
BELAUNALDIARTEKO-TASUNA	- Pertsona gazteagoekin (familiarterkoak zein ez) harremana izatea aberasgarria da adineko pertsonentzako. - Auzokideen artean harreman ona dute betiko jendearekin. - Gabonetan, etxeak jendez betetzen dira.	- Zaila da auzokide berriekin harreman berriak hastea. - Orain, etxeraino autoan joateko ohitura dago, eta horrek auzokideekin topo egiteko uneak murrizten ditu.	- Auzokideekin harremana berreskuratzea, lehenago bezala. - Adineko pertsonen eta gazteek etxebizitza partekatze programak sortzea, bai auzoetan, bai erdigunean.



ETXEBIZITZA			
AZPIGAIK	ALDERDI POSITIBOAK	ALDERDI NEGATIBOAK	PROPOSAMENAK
ETXEAN ZAHARTZEA	- Bainugelan ate lerragarria edukitzea, gurpil-aulkiaren neurrira egokituta. - Gehienek etxean zahartu nahi dute. - Udalak ke-detektagailuez hornitzea eta horien mantentze-lana eskaintzea. - Hainbat eragilek gizarte-laguntzak eskaintzen dituzte etxean zahartu ahal izateko. - Etxez etxe janaria banatzeko zerbitzua dago (Durangon). - Egoitza-eredu hibridoa, arreta eta gune intimoak (logela, egongela, bainugela). - Etxean adineko pertsonak zaintzeko kontratatutako pertsonak edukitzea.	- Mendekotasunerako laguntzak eskuratzeko zailtasuna etxebizitza egokitzeko (izapide eta balorazio asko egin behar dira). - Pisuarekin etxebizitzaren goiko solairuetara igotzeko arazoak. - Etxean zahartzea 24 orduetan zaintzailearekin egotearekin lotzen da. - Etxebizitza-motaz aldatzea osasun-arazoengatik (baseritik pisura). - Norbere burua garbitzeko zailtasunak edukitzea eta ez onartzea. - Ez dago medikamentuak etxera eramateko zerbitzurik bakarrik bizi diren pertsonentzako, larrialdiren bat baldin badaukate. - 60 eta 65 urte arteko pertsonen seme-alabek ez dituztela zainduko uste da, beraiek beren gurasoak zaintzen dituzten eta zaindu dituzten bezala. - Familiako zaintzaileak emakumeak dira ia beti. - Pertsona asko etxean bakarrik geratzen ari dira.	- Zerbitzuetatik hurbil bizitzeko beharra. - Pertsonak beren etxean bizitzen jarraitu ahal izateko pentsatutako zerbitzuak inplementatzea: - Adineko pertsonen etxera janaria eramango duen jatetxe soziala edo cateringa (Berrizko Udalak zerbitzu hau du). - Etxebizitza garbitzeko zerbitzua. - Etxean janaria prestatzeko zerbitzua. - Etxean edo etxetik kanpo zahartzeko beste formatu edo sistema batzuk asmatzea: - «Komuna»: adineko pertsonen beharrei hobeto erantzuneko lieke. Goiz bertaratzearen garrantzia kontuan hartuz, gozatu ahal izateko. - Cohousing-a. - Medikamentuak etxera eramateko zerbitzua bakarrik bizi diren pertsonentzako eta beharra dutenentzako. - Familiarekin etorkizunaz argi hitz egiteko beharra.



ERRESPETUA ETA INKLUSIOA

AZPIGAIK	ALDERDI POSITIBOAK	ALDERDI NEGATIBOAK	PROPOSAMENAK
ZAHAR-TZEAREN IRUDI PUBLIKOA	- Aldatu egin da adineko pertsonatzat hartzeko adina. - Adineko pertsonak gizarteari egiten dioten ekarpena: - Mugimendu ekonomikoa. - Esperientzia. - Jakituria.	- Komunikabideek zabaltzen duten adineko pertsonen irudi eskasa da nagusi: - Zama soziala: gazteek eurei pentsioa ordaintzeko lan egiten dute. - Gastua osasun publikoarentzako. - Ibilaldiak egiten dituzte.	- Erretiratuen irudia aldatzeko beharra, ez datorrelako bat errealitatearekin. - Komunikabideetan profesionaltasun handiagoa eskaintzen duten adineko pertsonen irudiaz. - Adineko pertsonen irudi positiboa sustatzea: gizarteaz arduratzen den eta gauzak aldatzen saiatzen diren pertsona aktiboak.
BELAUNALDIEN ARTEKO HARREMANAK ETA FAMILIARTEKOAK	- Familiarteko harremanak hobetzea: - Hurbileko pertsonak. - Komunikazio gehiago. - Seme-alabekin eta ilobekin egoteko denbora gehiago. - Lehen tabu ziren gaiez hitz egiteko normalizazioa. - Seme-alabekin lotura handiagoa.	- Aitona-amonak izatea beste betebeharrak berri bat bihurtu daiteke, norberarentzako denbora edukitzea ekidinez, eta lagunengandik isolatu dezake. - Orain dela gutxi egin zen belaunaldien arteko esperientzia etsigarria izan zen adinekoen eta gazteen arteko komunikazio-arazoengatik eta koordinazio-ezarengatik.	
ERRESPETU-AN OINARRITAKO ZERBITZU INKLUSIBOAK	- Zerbitzuak modu positiboan baloratzen dira.	- Ospitaleko erizainek tratatu desegokia ematen dute.	- Jendaurrean egon ahal izateko eskakizunak zehaztea: atsegina eta adeitsua izatea.
GIZABIDE HEZKUNTZA	- Osasun ona badute, ez da beharrezkoa adineko pertsonen eserlekua uztea garraio bide publikoetan edo beste leku batzuetan. - Eskola-jarduera adineko pertsonen bizipenak kontatzeko. - Oro har, adineko pertsonak errespetatzea da kontua. - Gazteek orain inoiz baino hezkuntza gehiago dute, baina ez errespetu gehiago.	- Balioak galdu dira. - Gizartearen indibidualizazioa. - Ardura enpatia-faltagatik (adibidez, arraroa da norbaitek adineko pertsonari eserlekua uztea). - Adin guztietako pertsonen errespetua gutxitu egin dela uste da. - Mendian agurtzea: lehen ohikoagoa zen mendian agurtzea, baina gero eta gutxiago egiten da eta garrantzitsua dela uste da ohitura horri eustea. - Adineko pertsona batzuk beste pertsona batzuk baino eskubide gehiago dituztela uste dute (ilaretan itxarotea, lehenetsia garraio publikoan, etab.). - Lehen adineko pertsonen beldurra zegoen, ez zen errespetua. - Adineko pertsonen buruzko komentario ezatseginak entzuten dira kalean.	- Gizabide-hezkuntza eta adin guztietako pertsonen errespetua sustatzea. - Behaketa eta ikasketa beste kultura batzuetatik, asiarra edo ijitoen kultura adibidez, adineko pertsonak nola tratatu, estimatu, babestu eta errespetatzen diren kontuan hartuz.



ERRESPETUA ETA INKLUSIOA

AZPIGAIK	ALDERDI POSITIBOAK	ALDERDI NEGATIBOAK	PROPOSAMENAK
KOMUNITA- TEAN INKLUSIOA	- Erretiratu berri diren pertsonak komunitateko partaide sentitzen dira.	- Zahartzerakoan, komunitateko partaidetza gutxitu egiten da. - Adin jakin batetik aurrera (80 urte inguruan) seme-alabek «behartu» egin behar izaten dituzte adineko pertsonak medikuarengana joatera, etxetik irtetera, etab. - Zaila da pertsona nagusiagoekin bizitzea, batzuetan euren partez erabakiak hartu behar dira. - Administrazio publikoak hauteskundeak daudenean bakarrik hartzen dituela kontuan uste dute.	- Elkarrekin herrira zabalik egotea sustatzea, herri osoarentzako eskaintzarekin, eta ez bakarrik elkarteko kide diren pertsonentzako. - Adineko pertsonen esperientzia eta jakituria gizarteari helaraziko dion egitura.



PARTAIDETZA ETA GIZARTE SAREA

AZPIGAIK	ASPEKTU POSITIBOAK	ASPEKTU NEGATIBOAK	PROPOSAMENAK
JARDUEREN ESKAINZA	- Jardueren eskaintza zabala. - Elkarre askok antolatzen dituzte jarduerak. - Antolatzen diren jardueretan jende askok parte hartzen du. - Jarduerak, etxetik irteteko aitzakia. - Adineko pertsonentzako kirol-eskaintza espezifiko dago: mantentze-gimnasia, 80 urtetik gorakoentzako gimnasia (eserita egiten da), yoga, dantza. - Memoria suspertzeko ikastaroen eskaintza. - Zelaieta eta Matienaren arteko senidetzea «kultur astean» zehar.	- Jarduerak prezio desberdinak dituzte. Batzuk ez dira merkeak eta pertsona guztiek ezin dezakete parte hartu. - Ohitura txarra: dena doan izan beharko litzatekeela pentsatzea. - Batzuetan parte hartzea kostatzen da alferkeriagatik. - Jaietan adineko pertsonen partaidetza txikia da. Gehien «festa kulturaletan» parte hartzen dute. - Kontzertu gutxi daude. - Udalak edo Mankomunitateak antolatutako jarduera batzuk ez dira egiten, jarduerak diseinatzerakoan eta hedatzerakoan ez zituztelako adineko pertsonak kontuan hartu. Adibideak: Jabekuntza Eskola edo Dotore zahartzen. - Kiroldegiko tarifak berdinak dira pertsona guztientzako. - Emakumeek gizonek baino gehiago parte hartzen dutela eta gizonek jarduera gehiago egiten dituztela aire zabalean sumatzen da.	- Pertsonak aktibatzekeo ekintzak zehaztea. - Kultur jardueren sustapen handiagoa (kontzertuak, antzerkia, etab.). - Kirol-instalazio publikoak erabiltzeko tarifa bereziak sortzea aniztasuna duten pertsonentzako eta adineko pertsonentzako. - Kontzertuen sustapen handiagoa, eskaintza handiagoa sortzeko. - Pertsonak antolatzen diren jardueren aukeraketan parte hartzea eta erabakiak hartzea.
IRISGARRI- TASUNA	- Jarduerak burutzen diren guneak gero eta egokituago daude pertsona guztien beharretara.	- Jarduera asko egiten dira erretiratuen elkarteetan, baina ez dute pertsona askok parte hartzen.	
PARTAIDE- TZA	- Partaidetzako adibide positiboa: Abadiño Lagunkoia.	- Beti parte hartzen dute pertsona berdinek. - Adineko pertsonak ez dira bereziki kontuan hartzen. Aitortzen dute, beraiek beren kabuz ere ez dutela asko parte hartzen. Adibidez ez doaz osoko bilkuretar. - Erretiratuen elkarteko tabernan arratsalde osoa bakarrik igarotzen duten pertsonak daude. - Bere seme-alabak bizi diren udalerrira joan behar diren pertsonak sare soziala galtzen dute. - Zahartu ahala, gero eta gutxiago parte hartu eta kontsumitzen da.	



PARTAIDETZA ETA GIZARTE SAREA

AZPIGAIK	ASPEKTU POSITIBOAK	ASPEKTU NEGATIBOAK	PROPOSAMENAK
KOMUNITA- TEAN INTEGRA- ZIOA	- Adineko pertsonen eskolako jardueretan parte hartzen dute. Eskolak belaunaldien arteko topaleku, bizipenak trukatzeko leku eta belaunaldien lotura sortzeko lekuak dira. - Udalak antolatutako San Rokeri errogatiba, herritarren arteko harremana sendotzeko topaketa garrantzitsua. - Belaunaldien arteko jardueretan parte hartzea ilobekin. - Hautemate positiboa belaunaldien arteko jardueri buruz.	- Erakundeen jarrera paternalista: egiten uztea nahi dute.	- Adineko pertsonen jakituria partekatu eta garrantzia azpimarratzeko jarduerak abiaraztea. Ezagutza eta laguntza partekatzea adineko pertsonen bizipenetan oinarrituz. Ezagutza trukatzeko gunea.
ISOLAMEN- DUA		- Adineko pertsonen tristeziari buruzko hautemate txarra. - Isolatuta dauden pertsonak daude udalerrian. - Isolatzeko arriskua bikotekidea hiltzean. - Taberna bakardadeari aurre egiteko lekua, bere alde positiboa eta negatiboekin, ematen zaion erabileraren arabera. - Beldurra dute, uste dutelako gazteak ez direla beraiek beren gurasoekin bezain adeitsuak izango. - Boluntario gutxi isolamenduaren aurkako ekimenak abiarazteko.	- Paseo osasungarriak ematea profesional baten laguntzaz (adibidez: Igorreko igorbili). - Isolamendu-kasuetarako protokoloa zehaztea.



HERRITARREN PARTAIDETZA ETA LANA

AZPIGAIAK	ALDERDI POSITIBOAK	ALDERDI NEGATIBOAK	PROPOSAMENAK
BOLUNTARIOTZA	- Abadiñon parte hartzeko aukerak daude. - Erretiratutako pertsona gehienek erretiratuen elkarteetan edo Bizidun programan parte hartzen dute. - Prozesuak errazten dituen erakunde edo elkarteak egoteak ziurtasuna ematen du, zalantzak argitzeko eta prestakuntza eskaintzeko. - Esperientzia konprometitua eta oso atsegina da. - Asko ikasten da eta oso aberasgarria da.	- Boluntarioen errealitatea ikusezina da. - Boluntario gehiago behar dira. - Boluntariotzari buruzko informazio gutxi dago: beharrezina, nola eta non lagundu. - Ezjakintasunagatik edo beldurragatik jendeak ez du parte hartzen. - Gatuak boluntarioak ordaindu behar ditu (desadostasuna horren egokitasunari buruz). - Murrizketek (segurtasuna, osasuna, etab.) boluntariotza zailtzen dute. - Laguntza boluntarioa burutzeko aukera falta Abadiñon. - Une batetik aurrera, ezin daiteke boluntariotza-ekintzak egiten jarraitu nahi bezain beste, eta utzi egin behar da apurka-apurka. - Boluntariotza ondo ikusita egon dadin, elkarte edo erakunde baten bidez gauzatu behar da. - Abadiñon atzeritarrak hartzeko saiakerak ez dira emankorrak izan. - Udal-mailan zaila da (errazagoa eskualde-mailan). - Aintzatesten ez den lana da.	- Gazte eta adineko pertsonen arteko ekintza sustatzea «burdinbideak» berreskuratzeko. - Boluntariotza-ekintzetan sortzen diren gastuak ordaintzea. - Lagundu/alboan egoteko prest dauden boluntarioen sarea/poltsa sortzea, beharrezina duten pertsonentzako (prozesuan parte hartu duten pertsona asko prest daude). - Adineko pertsonak egin ditzaketen boluntariotza-ekintzen katalogoa sortzea. - Gaztetatik boluntariotza sustatzea, gizartearen sustraituta egon dadin. - Boluntariotza-lanetarako profesionalen laguntza eskaintzea.
HERRITARREN PARTAIDETZA	- Erretiratuek denbora libre asko daukate. - Parte hartzera animatzen den jendeak normalean errepikatu egiten du. - Udalak herritarrak kontuan hartzen dituela uste da, hainbat kanalen bitartez: osoko bilkurak, internet, etab. - «Oinez bide» proiektua: Familiak antolatzea umeei eskolara oinez joaten laguntzeko.	- Udalak ez ditu pertsonen iritziak kontuan hartzen, herritarrek parte hartu arren. - Partaidetza murriztu egin da, batez ere gazteena. - Herritarren partaidetza falta, batzuetan Udalak aukerak eman arren. - Jarduera kulturaletan partaidetza eskasa, adibidez Errota Kultur Etxean egiten diren antzezlanetan. - Udalaren konpromiso falta, herritarrek parte hartzeko deialdiak iragarri, baina azkenean ez baititu gauzatzen.	- Jai-batzordea modu egokian egituratzea. - Partaidetza-prozesuen emaitzak jendaurrean jartzea. - Adineko pertsonak ahaldundzea, nahi duten aldaketa burutu dezaten. - Prozesuak sustatuko dituzten pertsonak egotea, gainerakoak motiba ditzan. - Partaidetza-eredu berriak bilatzea, iritziak batzea vs erabakiak gauzatzea. - Iritzia emateko foroak sortzea. - Batzorde irekiak sortzea. - Urtean parte hartzeko informazio-batzar bat sortzea, hauteskundeak irabazi dituen alderdi politikoak urte horretarako duen hauteskunde-programako gaiak buruz eta horretarako duen aurrekontuaren berri emateko.



HERRITARREN PARTAIDETZA ETA LANA

AZPIGAIK	ALDERDI POSITIBOAK	ALDERDI NEGATIBOAK	PROPOSAMENAK
LANA	- Ahal badute, pertsonak 65 urte bete baino lehen erretiratzen dira. - Lana egiteari uztean etxean geratzea modu positiboan baloratzen da.	- Langabeziaren errealitatea 50 urtetik aurrera: zailtasun handia lana aurkitzeko. - Zailtasuna 60 urterekin erretiratzeko, ohikoena 63 eta 65 urte bitartean erretiratzea da: - Txanda-kontratuen murrizketa. - Erretiro-pentsio eskasa. - Autonomoak 70 urterekin erretiratzen dira. - Baserrian lan egiten duten pertsonen bizitza osoan zehar lan egiten dute. - Erretiratu ostean beharragatik lan egiten jarraitzen duen jendea dago. - Senideak zaintzea ere lana da, eta ezin da erretiroa hartu mendekotasuna duen pertsona etxean dagoen bitartean.	- Gazteei laguntza eskaintzen dieten erretiratuen elkarteak. - Derrigorrezko erretiroa.



KOMUNIKAZIOA ETA INFORMAZIOA

AZPIGAIK	ALDERDI POSITIBOAK	ALDERDI NEGATIBOAK	PROPOSAMENAK
ESKAIN-TZA- REN JAKIN- ARAZPENA	- Ahoz ahokoa eta kartelak dira informazio-biderik onenak. - WhatsApp: gero eta gehiago erabiltzen da. - Lagun-taldea: informatuta egoteko sare ona da. - Kultura eta kirol arloko berriak etxean jasotzen dira. - Durangaldeko berrien WhatsApp zenbakia.	- Informazioa ez zaie pertsona guztiei iristen. - Erretiratuaren sarean ez dituzte jarduera guztiak ezagutzen. - Informazio guztia ikusi ahal izateko leku espezifikoak falta da. - Udalaren web-orria eguneratu behar da. - Pertsona gehienek ez dituzte kartelak begiratzen. - Gerediaga: udalaren iragarki-taula txarto kokatuta dago.	- Zelaieta-Muntsaratzen Matienakoak bezalako pantailak jartzea. - Udalerrian hobeto banatutako komunikazio bateratuaren beharra. - Postontzietan banatzea komunikazio hobea lortzeko bidea izan daiteke.
INFORMA- ZIOA		- InfoAbadiñoren WhatsApp zenbakia ez dabil ondo. - Kultur arloko informazioaren falta. - Postontzietan banatzen diren materialak ez dira Abadiñoko etxe guztietara iristen. - Kartel gehiegi daude, ofizialak zein ofizialak ez direnak. Jartzeko kokapen zehatz bat falta da. - Kartel guztiak astelehenetan garbitzen dira, oraindik egin ez den zerbait iragartzen dutenak barne. - Udalaren web-orria ulertzeko zailtasunak. - Komunikabide batzuk ez dira auzo guztietara heltzen (adibidez: crónicas ez da heltzen Muntzaratzera, eta Anboto oso berendu heltzen da Mendiola). - Matienako argidun panelak ez dabil ondo. - Farmaziaren alboan dagoen argidun panela astiroegi dabil. - BBK-ko sukurtsalaren aurrean dagoen argidun panel txikia ez dago eguneratuta, eta ez da ikusten. - Kultur eta kirol arloko informazioa falta da udalerrian. - Abadiñoko mediatekako liburuxkak/ informazioa dagoen gunea nahasita egoten da, eta informazio gutxi egoten da. - Interes gutxi kultur programazioan.	- Udala lantzen ari den gaiei buruzko aldizkako informazioa sortu eta hedatzea. - Infoabadiño abiaraztea. - Kartelak astero garbitzeko irizpide koherenteak zehaztea. - Udalaren web-orria berriz diseinatzea. - Argidun kartel berriak jartzea auzoetan. - Dauden argidun panelak konpondu eta zaintzea. - Matienako argidun panelen erabilera ezaugarrien arabera antolatzea. Handiena, noiz behinkako informazioa jartzeko, eta txikiena informazio zehatzagoa jartzeko. - Udalerriko jardueren eskaintzari buruzko hileko agenda ikusi ahal izateko plataforma (online eta offline) sortzea. - Udal-informazioa mediatekan eskuragarri jartzea (Errota Kultur Etxeko informazio berbera). - Antzerki, film eta abarri buruzko informazioarentzako beirateak jartzea (bandoenak bezalakoak). - Berri onak izatea: lorpenei, sariei, jaioetzi, jaiei, urtebetetzei... buruzko informazioa ematea.



KOMUNIKAZIOA ETA INFORMAZIOA

AZPIGAIAK	ALDERDI POSITIBOAK	ALDERDI NEGATIBOAK	PROPOSAMENAK
TEKNOLOGIA BERRIAK	- Oro har, ondo moldatzen dira teknologia berrieekin. - Zalantzak argitzeko teknologiarekin trebatuta dagoen sarea dute. - Bilerei buruzko informazioa WhatsApp bidez bidaltzen da. - «KZ gunearen» Teknologia berriak erabiltzen hasi berri diren adineko pertsonentzako prestakuntza-eskaintza dago «KZ gunean». - San Trokaz Elkarateak ikastaroak eskaintzen ditu, pertsona boluntario baten eskutik.	- Hurrengo urtetik aurrera Eusko Jaurlaritzak eta erakundeek komunikazio digitalak bakarrik onartuko dituzte. - Erakundeekin harremanetan jartzeko arazoak aurreikusten dira. - Euskadi Lagunkoia proiektuaren webgunea, adineko pertsonekin lagunkoia ez den web-orriaren adibide da. - Aldaketa teknologikoei inbertsioa dakarkie pertsonei (ordenagailua, internet, etab.) eta pentsioak txikiegiak dira horretarako.	- Ikastaro berriak sortzea teknologia berriak erabiltzen ikasteko. - Internet bidez izapideak egiteko prestakuntza. - Web-plataformen diseinu lagunkoia, pertsonak kontuan hartzen dituen diseinua. - Herritarrei internet bidez izapideak egitea errazteko laguntza-zentroa.
IDATZIZKO KOMUNIKAZIOA	- Aisialdiko eta kultur eskaintzari buruzko triptikoak udalerriko egunerokotasuna ezagutzeko beste informazio-iturri bat dira. - Liburuxkak material birziklatuz eginda egotea gogoko dute. - Anboto aldirikariko euskara egokia da, ulergarria.	- Euskara batuarekin nolabaiteko nahasketa dago. - Paper distiratsuak irakurketa zailtzen du, paper matea egokiagoa da. - Medikamentuen erabilera-orriek eduki ohi duten letra oso txikia izaten da. - Orokorrean, liburuxken letrak txikiak izaten dira.	- Erretiratuen elkarteetan jarduera publikoen liburuxkak jartzeko gunea sortzea. - Irakurketa errazaren eta paper matearen ereduak zehaztea inprimatuko den materialarentzako. - Irakurketa erraza erabiltzea informazio-material ofizialak diseinatzerakoan. - Irakurketa errazera itzultzeko zerbitzua udalean. - Elkarteei informazioa irakurketa errazeko formatuan eduki ahal izateko prestakuntza ematea.
MAKINAK		- Pertsonekin harreman zuzena izatea lehenesten da makina bidezko harremanaren aurretik. - Ardura pentsioengatik, automatizazioaren ondorioz, makinek ordezkatzeko baitute pertsonen lana.	
GORA-BEHERAK	- Abisuak ematerakoan, udalarekin izaten den komunikazio zuzena egokia da.	- Gorabeheren berri emateko, udalera joan behar da. Orain dela urte batzuk, udalak gorabeherak kudeatzeko "protokoloa" abiarazi zuen.	



GIZARTE ETA OSASUN ZERBITZUAK

AZPIGAIK	ALDERDI POSITIBOAK	ALDERDI NEGATIBOAK	PROPOSAMENAK
ZERBITZU ESKAINTZA	- Mankomunitateko gizarte-laguntzailearen arreta oso ona da. - Gizarte-langilearen orientabidea: informazioa eskaintzen du, kontaktuak eta ezagutzak ditu, eta nora bideratu azaltzen du. - Gizarte-zerbitzu ona, aurretiko hitzorduetan oinarritua, ilarak ekidinez. - Herritarrentzako Matienako Arreta Bulegoa. - Elikagaien bankua, anonimoa eta gizarte-langileak kudeatua.	- Zerbitzu «paternalistegiak». - Oro har, ez dituzte ezagutzen udalerrian eskaintzen diren gizarte-zerbitzuak. Hauxe diote: «ez da galdetzen beharra izan arte». - Oro har, ez dakite nora jo laguntzei edo baliabideei buruz galdetzeko. - Mendekotasun-laguntza jasotzeko prozesua oso luzea da: elkarriketa, balorazio-izapidea, erantzuna hartzeko denbora, etab. - Gizarte-zerbitzuen laguntza behar duen pertsona bera joan behar da. Pertsona batek beste bat ahultasun-egoeran dagoela susmatzen badu, ezer gutxi egin dezake laguntzeko. - Zelaia: ia ez dago zerbitzu publikorik, ez da ezer egin. Abandonu-sentimendua dute. - Ez dago adineko pertsonen elikadura ona ziurtatzeko zerbitzurik (catering, etab.). - Gaztelua eta Zelaietan bizi direnek zerbitzu asko Matienara eraman direla uste dute.	- Zerbitzuek adineko pertsonak ahalduntzeko balio beharko lukete, egiten uztea erraztu. Hauxe diote: «Guk geuk egin nahi ditugu gauzak, ez dugu nahi inork egiterik». - Burokrazia arintzea laguntzak aurreratzeko. - Diru eta baliabide gehiago erabiltzea gizarte-laguntzetarako. - «Lehenengo aldietarako» aholkularitza-zerbitzua. - Udalaren «liburuxkan» dauden zerbitzu eta laguntzei buruzko informazio esplizitua idaztea. - Jantoki sozialeko edo cateringeko zerbitzua adineko pertsonentzako (bilgarria eta janaria entregatzeko modua pentsatu. Hezkuntza nutrizionala, tailerrak etab. barne hartzea. - Jatetxeetan eta eskola-jantokietan sobera dagoena berrerabiltzeko moduak pentsatze, beharrezana duten pertsonen zerbitzua eskaintzeko (adib: hozkailu solidarioak Galdakaon). - Boluntarioen sarea sortzea adineko pertsonen lagun egiteko.
OSASUN ARLOKO ZERBITZUAK	- Abadiñoko osasun-zerbitzua ona da. - Profesionalen arreta. - Zelaietan mediku gehigarri bat (asteko egun batzuetan). - Hitzordua telefonoz eska daiteke.	- Zelaietako anbulatorioa txikia da. - Zerbitzu medikoa beteta dago. - Auzo hauetan bizi direnak Matienara joan behar izaten dira. - Osasun-zerbitzu pribatuak dituen jende asko dago. Bereziki espezialistentzat erabiltzen da.	



GIZARTE ETA OSASUN ZERBITZUAK

AZPIGAIK	ALDERDI POSITIBOAK	ALDERDI NEGATIBOAK	PROPOSAMENAK
OSASUN ARLOKO ZERBITZUAK		- Anbulatorioan informazio asko dagoen arren (informazio-liburuxkak eta -panelak) etxean informazio gutxi jasotzen da (kolonoskopia eta mamografien probei buruzko informazioa bakarrik jasotzen da etxean). - Batzuetan, medikuarengana joateko hitzordua telefonoz edo internetez eskatzen denean, gero ez da joaten. - Medikuek etengabe aldatzen dira (mediku titularra eremu-koordinatzailea da eta ez dago beti arreta eskaintzeko moduan). - Ordezkoen falta oporraldian edo pertsonalen baja laburretan. - 60 urte baino gehiagorekin urteko analisisen derrigortasunari buruzko informazio gutxi. -Aparkaleku falta medikuaren kontsultatik edo farmaziatik hurbil. - Espezialistentzako hitzordua lortzeko denbora asko behar da.	- Zelaietako anbulatorioan leku gehiago eta mediku gehiago eskaintzea. - Herritarrei bizitzako etapa bakoitzean osasun kontuetan jarraitu behar dituzten urratsei buruzko informazioa ematea. - Jarduera/talde «tematikoak» sortzea; adib: pisua murriztu behar duten pertsonentzako tailerra.
ETXEZ-ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA	- «Alderantzizko hipotekaren» formula erabiltzea: errenta ordaindu ezin denean hilean kuota bat ematen dute laguntza-zerbitzuak kontratatzeke. Horrela, adineko pertsonen zerbitzu osoagoak izan ditzakete. - Pertsona bakoitzak dituen behar zehatzetarako laguntzak eskatzeko aukera: dutxa, garbiketa, janaria egitea...	- Pertsona «ahulak» identifikatzeko zailtasuna, hots, laguntza edo aholkularitza behar dutenak. - Giza baliabideen eta baliabide ekonomikoen falta (langileen saturazioa). - Zerbitzu publikoak pribatuekin osatzeko beharra. - Laguntzak jasotzeko balorazioen moteltasuna. - Laguntzak jasotzeko balorazio-irizpide zorrotzegiak. - Aldundiaren ordukako laguntza-zerbitzua garestia da. - Izapide asko egin behar dira edozein zerbitzu jasotzeko.	- Pertsona «ahulentzako» laguntza-zerbitzua sortzea /garbitzeko, mandatuak egiteko... laguntza) eta egun hitzartuta dagoen mendekotasun-maila bete beharrik gabe eskaintzea.
EGUNEKO ZENTRUA		- Ez dago eguneko zentrorik. - Eguneko zentroak kartzela eta pertsona abandonatuez betetako leku gisa hautematen dira, eta beraz parte-hartzaileek ez dute hara joan nahi.	- Mendekotasuna duten pertsonen egunean ordu batzuk igarotzeko lekua edukitzea, zaintzaileek atsedean hartu ahal izateko.



GIZARTE ETA OSASUN ZERBITZUAK

AZPIGAIK	ALDERDI POSITIBOAK	ALDERDI NEGATIBOAK	PROPOSAMENAK
EGOITZA	- Partekatutako zerbitzuak dituzten etxebizitzak (co-housing) sortzeko batzen hasi diren pertsonak. - Eubako Orue Egoitza: egoitza ulertzeko modu berria.	- Egun egoitza ulertzeko modua ez dator bat errealitatearekin. Mendekotasuna duten pertsonentzako lekuak dira. Mendekotasunik ez duen jendeak ez ditu ontzat hartzen. - Pertsona guztiak kalitatez artatzeko baliabide falta. - Egoitza pribatuen prezioa garestia da (2.500-3.000 euro hilean) eta horregatik, merkeagoa eta lagunkoiagoa da etxean zaintzailea edukitzea. - Abadiñon egoitza egiteko hitza eman zuten hauteskundeetan. - Pertsona nagusiek logela pertsona ezezagunekin partekatu beharra, bizitzan zehar mania asko pilatu ditugunean. - Itxarote-zerrenda luzeak egoitza publikoan lekua esleitzeko behar den baloraziorako. - Eskualdeko egoitzen saturazioa (Durango eta Elorrio). - Beste udalerrri batetara joan beharra. - Laguntzaren "burokratizazioa". - Bizitza osoan elkarrekin egon diren senar-emazteak banatu egiten dira batzuetan, emaztea egoitza batera eta senarra beste batera. - Egoitza askok duten arazoa: sartzen diren unean beranduegi da dagoeneko. - Adinekoen co-housing-ak arazo bat du: bizikide guztiak aldi berean zahartzen dira. - Eubako Orue Egoitza: oso garestia da, erdigunetik oso urrun dago, eta ez du bizitza soziala errazten.	- Udalerrian egoitza izatea. - Egoitza ulertzeko modu berri bat sortzea, bakarrik bizi diren eta mendekotasunik ez duten pertsonentzako. Banako logela eta zerbitzuak edukitzea. - Egoitza publiko merkeak eskaintzea. - Eutanasia baimentzea.
BESTELAKO ZERBITZUAK	- Durangaldeko Esperientzia Institutuak eta ikastaroetan sortu diren proiektuak (Bizidun, gaiei buruzko eztabaidak, manequin challenge). - Zaintza, Caritaseko GKE.		- Zaintza Zerbitzuaren hautemate eta balorazioaren jarraipena egitea.



GIZARTE ETA OSASUN ZERBITZUAK

AZPIGAIK	ALDERDI POSITIBOAK	ALDERDI NEGATIBOAK	PROPOSAMENAK
ZAINTZAI-LEEN ZERBITZUA	- Zaindu programa. - Gaixotasunei buruzko ikastaroak, ezinbestekoak eta oso erabilgarriak. - Caritasen laguntza zaintzailea bilatzeko bitartekari gisa. - Udalerri txikietako "ahoz ahokoa".	- Zaintzaileek (normalean emakumeak) ez dute izaten atseden hartzeko astirik. - 24 orduko lana.	- Mendekotasuna duten pertsonen egunero ordu batzuk igarotzeko lekua edukitzea, zaintzaileek atseden har dezaten.
LARRIALDI-AK		- Durangoko anbulatoriora edo zuzenean Galdakao-Usansoloko ospitalera joan beharra. - Durangoko larrialdi-zerbitzua beteta dagoenez, askotan zuzenean Galdakaora joaten da.	- Eskualdean ospitalea sortzea.
TELE-LAGUNTZA	- Konfiantza eta lasaitasuna ematen die familiari zein erabiltzaileari berari. - Adin batetik aurrera eskubidea da edukitzea.	- Argia joaten denean ez funtzionatzeak kezkatzen ditu. Ezin daiteke deitu.	
KE-DETEKTA-GAILUA	- 80 urtetik aurrera udalari eska dakioke instalatzeko (mantentze-lana ere udalak hartuko du bere gain.		
NAGUSILA-GUN	- Talde bat dago Matienan. - Etxetik irteteko, mugitzeko, jendearekin harremanetan egoteko, kirola egiteko aitzakia da.	- 80 urtetik gorakoentzako bakarrik da. - Ez da programa ezagutzen.	- Programak adin gutxiago duen jendea ere barne hartzea. - Programari buruzko informazioa pertsona guztiei helaraztea (argidun panelak erabiltzea, informazio-liburuxkak postontzietan banatzea).



22. irudia: Abadiño Lagunkoia diagnostikoaren saio parte-hartzailea

LAGUNKOITA-SUNARI BURUZKO GALDETEGIAREN EMAITZAK

Lagunkoitasunari buruzko galdetegia Euskadi Lagunkoiaren bidez lor daiteke. Prozesua garatzen duten udalerrri guztientzako prestatuta dagoen galdetegia da, eta bere helburua da, proiektua ahalik eta pertsona gehienengana helaraztea eta dagokion udalerrriaren lagunkoitasunari buruz beste adin-tarte batzuetako pertsonak duten iritzia ezagutaraztea.

Galdetegia eta jasotzeko postontziak udalerrriko bederatzi leku publiko eta estrategikotan jarri dira, argibideak emateko kartel eta liburuxkekin batera. Gainera, Abadiñoko KZ gunearekin adostu da galdetegia “on-line” modalitatean bete ahal izatea, bertako teknikarien laguntzarekin.

Prozesu hau diagnostiko-fasea hasi baino lehen abiarazi da, eta beraz, aurreko atalean aipatutako hasierako taldeak izan du hau abiarazteko ardura.



Guztira 271 galdetegi bildu dira, horietatik 183 emakumeek bete dituzte, eta 81 gizonek.

Adin guztietako pertsonak bete dituzte galdetegiak, baina gehienak 40 eta 59 urte bitarteko pertsonak izan dira, hots, partaidetza osoaren %39. Parte-hartzaileen generoari dagokionez, parte-hartzaileen %68 emakumeak izan dira.

Galdetegian udalerrriko hainbat alderdi baloratu behar dira 1 eta 5 arteko eskala erabiliz. Gainera, udalerrriko alderdiei buruzko gogobetetasuna zein den baloratzeaz arduratzen den azken zati bat du.

Atal horretan, lortutako erantzunen laburpena jasotzen da. Galdetegiko erantzun guztiak jasotzen dituen dokumentua erantsi da.

Galdetegia egin duten pertsonak udalerrria garbia eta atsegina dela uste dute, baina baita nahiko zaratatsua ere. Udalerrria merkea



edo garestia den galdetu zaienean, pertsona gehienek erdian dagoela uste du, ez dela ez garestia, ez merkea.

Udalerriko aire zabaleko guneei buruz, nahikoa daudela erantzun dute, nahiko ondo zainduta, oso ondo kokatuta daudela eta maiz joaten direla bertara. Gai kritikoena ekipamendua da, ekipamendu hobea eduki lezakeela erantzun dute.

Espaloi eta kaleen egoerari dagokionez, ondo samar zainduta daudela erantzun dute. Irisgarritasunari buruz, erantzunek puntuazio ertaina lortu dute, ez zaie iruditzen ez irisgarritasunik gabea, ez irisgarritasun askokoa. Eserlekuei dagokionez, gehiago egon litezkeela erantzun dute.

Zirkulazio eta seinaleei dagokienez, trafikoa seinaleekiko erdi-mailako errespetua dagoela erantzuten dute, eta semaforoak nahikoa denbora irauten dutela. Kasu honetan, gai kritikoa ibilgailuen abiadura da, ez direla ibiltzen abiadura egokian erantzun dute.

Segurtasuna da galdetegi osoko atalik negatiboenetako bat. Udalerria nahiko ondo

argizatuta dagoela erantzun dute, baina gainerako atalei puntu negatiboa eman diete. Lapurretak jasateko arrisku nahikoa dagoela uste dute eta segurtasun eza sentitzen duten eremu dezente daudela adierazi dute. Puntu gutxien jaso dituen gaia zaintzarena da, udalerria ez dagoela behar bezala zainduta aipatu baitute.


Garraioa, aldiz, balorazio onenetakoa jaso duen atala da. Punturik positiboenak geltokien kopurua, ibilbideak eta autobusen maiztasuna dira. Ez dute trena maiz erabiltzen, eta tren-geltokiaren kokapena ez da oso ona.

Etxebizitzaren atala modu nahiko negatiboan baloratu dute, eta punturik kritikoena etxebizitza konpondu edo egokitzeko laguntzak daudela ez jakitea da.

Sareei eta laguntzari buruzko atala, berriz, oso modu positiboan baloratu da.

Boluntarioria eta asoziazismoari dagokionez, erantzun duten pertsona gehienek ez dute boluntarioria-jardueretan parte hartzen, eta ezta elkarteetan ere, baina bizitza sozialean gehiago parte hartzea gustatuko litzaieke.

05. grafikoa: gogobetetasunari buruzko inkestaren erantzunak



Aisialdiaren ataleko erantzunek instalazioak nahiko ondo kokatuta daudela uste dutela adierazten dute. Baina jardueren aniztasuna nahiko negatiboki baloratzen dute, eta prezioa ertaina iruditzen zaiela diote, ez oso garestia, ez oso merkea.

Errespetuaren eta inklusioaren gaia balorazio onenenetakoa duen gaia da. Adineko pertsonak errespetatuak direla udalerrian uste dute, eta belaunaldien arteko harremana badagoela diote, harreman handiagoa egon litekeen arren.

Komunikazioa gai negatibo gisa agertzen da. Inkesta egin duten pertsonen ez dute uste udalerrian gertatzen denari buruz ondo informatuta daudenik, internetera doan sartu ahal izateko zentro publikoak ezagutzen dituzten arren.

Gizarte-zerbitzu eta osasun-arloko zerbitzuei dagokienez, balorazio txarrean jaso duen alderdietako bat da. Inkesta egin duten pertsonen diotenez, ez dituzte dauden zerbitzuak ezagutzen. Baina osasun-zentroen kokapena modu positiboan baloratzen da.

Azkenik, gogobetetasun ertaina dago honako gai hauei buruz: udalerriko parke eta aire zabaleko eremuak, etxebizitza, gizartean parte hartzeko aukerak, eta udalerrian gertatzen denari buruzko komunikazioa eta informazioa.

Gainera, gogobetetasun handia dago honako gai hauei buruz: udalerri barnean zein kanpoan mugitzeko moduak, senide, auzokide edo lagunekin harremanak, aisialdiaz goatzeko modua, adineko pertsonen errespetua eta udalerriko bizitzan barne hartzea eta udalerriko gizarte-zerbitzuen eta osasun-zerbitzuen funtzionamendua.



23. irudia: zerbitzu hornitzaileekin egindako saioa

ZERBITZU HORNITZAILEEKIN EGINDAKO SAIOAREN EMAITZAK

Aurreko ataletan aipatu de bezala, adineko pertsonentzako zerbitzuen hornitzaileekin saio bat burutu da. Saio honen helburua hirugarren adinari buruz pertsona hauek zeukaten iritzia jakitea eta proiektuaren berri ematea izan da.

Parte-hartzaileek dauzkaten espektatiba nagusiak proiektua ezagutzea, ekarpenak egitea eta zertan hobetu behar zuten jakitea izan dira. Gainera, saioan esandakoa gauzatzea ere gustatuko litzaieke.

Adineko pertsonak gaingiditu behar izaten dituzten erronka nagusiez hitz egitean, honako hauek aipatu dituzte:

- Mendekotasuna.
- Adineko emakumeak: estereotipoak, zaintza-lanak eta genero-indarkeria.
- Adineko ahulak: talde bakar batean ere kokatzen ez den taldea, ez dute laguntzarik jasotzen.
- Bakardadea/babesgabetasun-egoerak: ezjakintasuna.
- Hirugarren adina: talde handia eta anitza, 3. adina edo 4. adina.
- Adineko pertsonen ahalduntzea.
- Osasun-arloko ahalduntzea.
- Prebentzioa.



24. irudia: itxiera-saioa eta diagnostikoaren aurkezpena

Zerbitzu-hornitzaileek Abadiño lagunkoiagoa izan dadin egin ditzaketen ekarpenei buruz, ideia nagusia da beharrezkoa dela sail eta erakundeen arteko koordinazioa sustatzea. Mankomunitatea eta udalerrietako udalak kontuan hartzea.

Gainera, zerbitzuak batzuetan paternalistegiak direla uste dute, adineko pertsonen ahalduntzea ahaztu egiten da «kontuan hartu behar dute nagusiak direla, ez umeak, lagundu egin behar zaie, baina ez diegu dena geuk egin behar», diote.

Honako hauek dira Abadiño lagunkoiagoa bihurtzeko egin ditzaketen bi adibide: osasunaren eta kulturaren arloa.

Osasunaren arloan erronka zehatz bat dute: gaixotasun kronikoen kudeaketa egokia. Gainera, adineko pertsonen ahalduntzea ere garrantzitsua da, adineko pertsona bere osasunaren protagonista izatea lortu behar dutela diote.

Kulturaren arloan, adineko pertsonekin elkartu nahi dute eta agenda kulturala beraiekin batera diseinatu. Horrela, eskaintza pertsonalizatuagoa eta beren beharretara egokitutakoa lortzeko.

Azkenik, hurrengo lerroetan, Abadiño lagunkoiagoa bihurtzeko eragileek dauzkaten proposamen edo ideiak laburtzen dira:

- Dementziari buruzko prestakuntza.
- «Irakurketa erraza» dokumentu guztietan.
- Genero-indarkeriari buruzko protokoloa etxe guztietara bidaltzea, adineko emakumeak protokoloan txertatzeko modua pentsatuz.
- Partaidetza-prozesuetan adineko emakumeen parte-hartzea bermatzea.
- Oztopo arkitektonikoei buruzko azterketa.
- Merkatariak: herritarrek eta kolektiboek helarazten dituzten beharrak «erabakiak hartzeko guneetara» bideratzea.

Azkenik, eragileek interesa erakutsi dute proiektuan eta mota honetako saio gehiago egitea gustatuko litzaieke. Beraz, diagnostiko-fasearen amaieran beste saio bat egingo da beraiekin, proposamenen hurrengo urratsak baloratzeko.

7

**BALORAZIOA ETA
HURRENGO
URRATSAK**

BALORAZIO OROKORRA

HELBURUEN BETEARAZPENARI BURUZKO BALORAZIOA

Prozesua baloratzeko, prozesuaren hasieran adierazitako helburuak aztertu dira.

Prozesuaren helburu nagusia OMEk proposatutako zortzi gaietan funtsezko ezaugarriak identifikatzea izan da, Abadiño adineko pertsonentzako, eta ondorioz baita herritar guztientzako, udalerri lagunkoiagoa bihur dadin, eta proposamen berritzaileak eta inklusiboak sor daitezen.

Gainera beste bi helburu zehaztu dira:

- Adineko pertsonen ahalduntzea bultzatzea, gizartean eta erabakitze-eremuetan duten partaidetza aktiboagoa izan dadin.
- Adineko pertsonen eta inguruko eragileen (zaintzaileak) beharrak, nahiak eta hautemateak identifikatzea eta erakundeen politika, zerbitzu eta egituretan txertatzea.

Helburu nagusia guztiz bete dela ondoriozta daiteke. Zortzi gaien diagnostikoa egin da, adineko pertsonen ikuspegian oinarrituta, eta diagnostikoan erronka eta arazoei erantzuten dieten proposamenak

zehaztu dira. Betearazpen-maila desberdinak dituzten proposamenak dira: egun batetik bestera ezarri daitezkeen proposamenak zein ikuspegi estrategikoagoa duten proposamenak, epe luzera ezarriko direnak. Honako hauek dira horren bi adibide argi: espaloiak konpontzea (betearazpen azkarra) eta derrigorrezko bakardade-egoeran dauden pertsonen laguntzeko soluzioak bilatzea (epe luzeko betearazpena).

Proiektuan parte hartu duten adineko pertsonen ahalduntzea sustatzeko helburua pixkanaka lortu da.

Ekimenarekin konprometituta dauden 12 pertsonen osatutako Talde Eragile finkatuan

oinarritzen da. Beraiek izan dira proiektuaren garapena sustatu dutenak. Halaber, prozesuaren jakinarazpenaz eta parte-hartzaileak erakartzeaz arduratu dira, foku-taldeekin egindako saioetarako lekuak eta aperitiboak antolatzeke arduraz izateaz gain.

Pertsona gehienentzako hauxe izan da parte hartu duten lehen prozesua. 60 urtetik gorako 71 pertsonak parte hartu dute prozesuko jardueraren batean, eta gutxi gorabehera 44 dira parte hartzen jarraitu nahi dutenak.

Abadiño Lagunkoia prozesua adineko pertsonen udalerria hobetzeko egin dezaketenean lan garrantzitsua agerian jarri duen prozesua izan da, eta horretaz konturatzeak modu aktiboan parte hartzera animatu ditu.

Saioetan erabilitako dinamika eta metodologiek kontuan hartu dela dinamika-mota horietara ohituta, eta inguru erosoak eta monopolizatu gabeak sortu dira, banakako iritziak lasai eta segurtasunez eman ahal izatea bermatuz.

Azkenik, hurbileko beste eragile batzuen ikuspegia biltzearen helburua ere bete dela esan behar da. Horretarako, saio bat egin da zaintzaileekin, eta beste bat zerbitzuen hornitzaileekin. Horien ikuspegiak ezinbesteko garrantzia izan du diagnostikoa osatzeko.

PARTE HARTZAILEEN BALORAZIOA



25. irudia: foku-taldea saioei buruzko balorazio-fitxa betetzen.

PARTE HARTZEAREN BALORAZIOA

Nabarmentzekoa da prozesuko partaidetza-maila. Guztira 90 pertsonak parte hartu dute. 71 pertsona 60 urtetik gorakoak izan dira, eta 19 adineko pertsonen inguruarekin lotura dutenak (eragileren baten ordezkari bezala edo banakako gisa).

Foku-taldeei dagokienez, nabarmentzekoa da 65 eta 70 urte bitarteko pertsonen parte-hartze handia. 75 urtetik gorako pertsonen partaidetza, eta batez ere 80 urtetik gorakoena txikiagoa izan da. Horregatik, saio espezifiko egin da beraientzat, eta 10 pertsonak parte hartu dute saio honetan.

Saio parte-hartzaile guztien amaieran balorazio-txantiloia eman zaie parte-hartzaileei. Txantiloia honetan 5 galdera egiten dira saioan parte hartzearen esperientzia nolakoa izan den galdetuz:

- Nola sentitu diren saioan
- Edukia zer iruditu zaien
- Dinamizazioa zer iruditu zaien
- Kafea gustatu zaien
- Hurrengo saioan parte hartuko duten

Balorazioa gometsekin egindako botazio-dinamikaren bidez egin da, 1etik 5era bitarteko tartean (1 balorazio txikiena eta 5 handiena).

Orokorrean, botazioa oso positiboa izan da eta saio guztien batez besteko balorazioa 4,75ekoa izan da 5etik.

Balorazio-tresna honetaz gain, azken bi saioetan prozesu osoari buruzko balorazio orokorragoa bildu nahi izan da, eta baita parte-hartzaileen iritziari buruzko balorazioa jaso ere.

Prozesuari, orokorrean 8,8ko nota eman zaio 10etik. Saioaren formatua eta iraupenari 8,8 eta 9 puntu eman zaizkie, hurrenez hurren eta talde eragilearen lanari 9,3.

Prozesua oso positiboa izan den arren, hobetzeko proposamenak ere egin dituzte, hala nola, saio parte-hartzaileen forma aldatzeko aukera, ia denak formatu bera eduki baitute.

Balorazio kualitatiboari dagokionez, honako hau galdetu zaio parte-hartzaile bakoitzari: Zer izan da Abadiño Lagunkoia zuretzat?

Hurrengo orrialdean erantzunetako batzuk agertzen dira.

Zer izan da Abadiño Lagunkoia zuretzat?

«Prozesu oso interesgarria eta parte-hartzailea».

«Oso positiboa».

«Adinekoek parte hartzeko ekimen interesgarria».

«Auzokide interesgarriak ezagutzeko aukera».

«Jendea eta herria ezagutzeko aukera».

«Aurkikuntza positiboa».

«Pertsona hauek elkartzea bakarrik, perfektua».

«Prozesu berritzailea, baina batzuetan pixka bat errepikakorra. Baina hala ere positiboa».

«Esperientzia oso positiboa».

«Herriko jendea hobeto ezagutzeko aukera, integratzeko aukera».

«Herria eta pertsonak hobeto ezagutzeko aukera».

«Oso ondo, jarraitu egin behar dugu».

«Esperientzia aparta».

«Esperientzia oso positiboa».

«Positiboa».

«Proiektu oso interesgarria, jende ona ezagutu dut proiektuaren bidez».

«Herritarrek parte hartzeko aukera ona».

«Zerbait oso positiboa eta soluzioak bilatzeko gogoia ematen duena».

«Esperientzia ahaztezina».

«Ariketa oso interesgarria eremu ezberdinak baloratu eta barne hartzeko».



26. irudia: miaketako kanpoko saioko foku-taldea

«Prozesu oso polita eta oso atsegina».

«Positiboa, herria hobetzeko lagundu eta ekarpenak egiteko gogoia dudala konturatu naiz».

«Berria. Esperientzia positiboa. Nire lagunartekoak ez diren pertsonekin harremana. Herria taldean ikustea. Iritziak partekatzea. Orokorrean oso interesgarria. Kafe informalak talde trinkoa eratu du, giro ona».

«Herriko beste pertsona batzuk ezagutzea. Udalerrriak dituen gauza onei eta txarrei buruz nire iritzia ematea eta pentsatzen duguna adierazteko ahotsa izatea. Herri hobea izaten laguntzea».

«Herriko jendea gerturatzeko balio izan du».

«Herriko auzo desberdinetako jendea ezagutzeko modua».

Etengabeko garapen- prozesua.

HURRENGO URRATSAK

- Ekintza-plana diseinatzea.
- Ekintzak inplementatu eta horien jarraipena egitea.

Dokumentuaren egileak:

Abadiño Lagunkoia eta Maraka Koop. Elkartea Txikia

Data:

2018ko iraila

Lizentzia:

Dokumentu hau Abadiño Udalak sustatutako Abadiño Lagunkoia proiektuaren barruan dago Abadiño herritarren edo interesa duen edozein herritarren eskura jartzen da Creative Commons Aitortu-Partekatu Berdin 3.0 lizentziarekin.

ABADIÑO LAGUNKOIA

2018.09